

GELKARTEAREN BABESAREKIN

GASTEIZ

Annapurna euskararen zain

Elkarrizketak

Juanito Oiarzabal

Eneko Etxebarrieta

Maier Iriarte

DISEINUA: GATZAGAIN

URTE BERRI ON

Gabon zoriontsuak izan ditzazuela opa dizuegu

XABIER MONTIEL / GEU ELKARTEKO KIDEA

Oraindik daukat gogoan 1978an "San Mames" en igarotako "BAI EUSKARARI" kanpainako egun hura, eta biziki han izandako esperientzia. Koadrilako lagunak, ez dakit oraindik noren kotxea hartuta, Bilbora abiatu ginen prentsan eta irratian azken egunetan etengabe aipatzen ari ziren festara. Gure artean, egia esanda, euskararekin oso lotura eskasa ematen zen garai hartan eta hala ere, ez dakit nondik etorritako deia jaso izan bagenu bezala, han ginen. Bokatak... musika... barreak... giroa... aluzinea... Gorka Knörren abestiak... Arabarrok... euskaldunok...; hitz batean: Mundiala!!

Hogei urtetan denetarik gertatu da eta lehengo egoera asko aldatu dela esango nuke nik, Araban behintzat. Gutariko asko euskaldundu egin gara eta gurekin batera gure seme-alabak. Belaunaldi gazteek era desberdin batez bizi izan dituzte euskararen garai berriak, baina oraindik euskararen erabilera ez da errotu gure gizartean.

Deialdi berri bat dugu "BAI EUSKARARI"rekin bat egiteko eta aukera honetan ez da oso urrutira joan behar, ez!!; etxean ospatuko dugu. Eta oraingoa arabarrok euskarari inoiz baino bultzada handiago emango diogulakoan nago.

Hau irakurtzen dugunean Abenduaren 26an Mendizorrotzan egindako festaren oroimena grabaturik geratuko zaigu berrira, eta kanpainaren leloak dioen bezala, XXI. mendeko akordioan agertu hitzak desafiotzat hartuko ditugu aurrerantz: EUSKARA GUZTION ONDAREA DA ETA

DENON KONPROMISOA BEHAR DU AURRERA ATERATZEKO...

... Eta urtea joan zaigu eta egunotan zorion... opa... desioz bete ohi zaigu golkoa, eta gizartea artifizialeki bihurtzen ari dela konturatzean, hitzen benetako esanahiaz jabetzeko hiztegiara jotzea izaten da egokiena, eta hara!:

OPA(tu): 1.dio: norbaitentzat zerbait nahi izan. Desiratu. 2. du: norbaiti zerbait aurkeztu beretzat har dezan. Eskaini.

ZORION: Iz. 1. pozezko edo atseginezko egoera izatea. 2. norbaiti bizitzako une garrantzitsuetan asmo nahiz gogo ona adieraziz opatzen diogun onginahia.

Desiratu, eskaini, gogo, onginahia, atsegina... Gehiegi filosofatu gabe, hauek izan daitezke nire benetako asmoaren ardatzak, eta noski, mundu osoari opa egiten diot, eta konkretuki euskara norberaren txokotik bultzatzen ari zaretenoi... Eta bereziki esku artean duzuen produktua ateratzen dutenei.

Geu Gasteiz aldizkaria ateratzen duzuenoi,
Geu Gasteiz aldizkarian iragarkiak jartzen
duzuen denda, taberna etab.;

Geu Gasteiz aldizkariko proiektuan sinetsi eta era
batean/edo bestean indartzen ari zaretenoi...

... ZORIONAK!!

Agur eta ondo izan

Naturaren ibadak



Negua heldu da eta
hotzarekin batera
otsoa lagun

73. ZENBAKIA 1.999KO URTARRILA

GEU GASTEIZ, Gasteizko
Euskaldunon hilabeteakaria

ERREDAKZIOA:

Pedro Asua, 2-3.a
Telefonoa eta Faxa: 22 21 53

ZUZENDARIA:

Esitxu Breñas Glez. de Zarale.

ERREDAKZIOBURUA:

Asier Dz. de Karkamo.

ERREDAKZIOA:

Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz
de Mendibil, Txabi Arenal-Gil, Raul
Saez de Buruaga, Itziar Uriarte.

ARGAZMAK:

Ederla Sanz.

MAKETA:

Galzagain Argitarapenak.
Telefonoa: 970 40 18 46

INFOGRAFIA:

Alex Badillo.

KOMIKIA:

Iñigo Sarasola

NATURAREN ISLADAK:

Iñaki Zorrakin.

KOLABORATZAILEAK:

Joseba Olalde, Imanol Barrutia,
Asier Iriondo, Elbira Elejalde.

PUBLIZITATEA:

Karles Fdez. de Belño.

BANAKETA ARDURADUNA:

Txipi Ormaekea.

INPRIMATEGIA:

Gerlu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

ALE KOPURUA:

2.500

LG: VI-582/92

ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb.

ALDIZKARI HAU PAPER
EKOLOGIKOZ EGINA DAGO

Geu Gasteiz hilabeteakaria
ez du bere gain hartzen
bertan adierazilakoen erantzunkizunik.



GIZARTEA

**Annapurna,
Juanitoren
14. ametsa,
euskararen
zain.**

iritziak

30 Imanol Barrutia

... eta bai, eta bai, nik euskarari bai ta bai.

33 Asier Iriondo

Bigarren milurtekoaren amaiera...

34 Elbira Elejalde

Klik-klik.

laburrak

5 Argazkilaritza

Geu gasteiz lehiaketako txapelduna.

elkarrizketak

14 Eneko Etxebarrieta

Istanbulera bizikletaz.

aunkibidea

3/4ak beteta
kalean beharko
lukete.

11
Orr.

KIROLAK



erreportaiak

11 Gizartea

Zer da Hiru plataforma?

piti-pata

17 Txikiñen orrialdeak.

argazkitan

20 Euskara

Menziorrotzak euskarari bai.

kirolak

27 Mendia

Annapurna, Oiarzabalen zai.

29 Botepronton:

kultura

21 Literatura

Saramagora heltzeko gida.

22 Musika

1.988. Urtea joan zaigu.

24 Gaurkoak eta betikoak

Rod Stewart, Juan Luis Guerra...

25 Agenda

Urtarrileko kultur ekitaldien zerrenda.

ohikoak

2 Editoriala

Naturaren isladak

5 Kalea Mintzo

32 Komikia



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria




CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Gasteizko Udala Argitarapen Zerbitzua



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKALDUNON EGUNKARIA

HELBIDEA: <http://www.egunkaria.com>

SORTZAILEA: Euskaldunon Egunkaria

Formato berriarekin ageri zitzaigun abenduaren 27an, igandea, Euskaldunon Egunkaria. Eraberriturik, modernoagoa eta, batez ere, irakurterrezagoa. Bada, Interneten ere azaltzen zaigu ordutik Ordenagailuaren pantaila egunkariko orrialdeak baino nahiago dutenentzat. Euskal Herrian agian ez, baina Euskal Herritik kanpora bizi diren euskaldunek eskertuko dute, zinez. Zorionak, berri ere, Egunkaria!

santa barbarako azoka

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postaz: **pedro asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53**

SALTZEN DUT

Antzinako banponen bilduma saltzen dut, baita gehiago ere. Mende honetakoak eta nazio anitzekoak ere badauzkat.

945 14 54 90

Lanpara bat dut salgai sarre-ran ipintzen den kristalxo asko duen horietako dotore bat. Oso ona da.

945 22 73 03 Maite

Telefono mugikorra daukat salgai. Ascom Elisto (Airtel). 19.000 pta. balio du eta nik 15.000 pta. salduko dizut

945 22 73 03 Jabi

Pedro Sainz margolariaren oleo bat daukat salgai. Arabako Lasarte herria da. 108x87. Salneurria: 60.000.

945 22 73 03

Trono itxurako aulki handi bat daukat salgai, oso aproposa adineko jendearentzat. Erosoa. Salneurria: 12.000.

945 22 73 03

DEITZEN DIZUT

Ohiko osasun sistemam asezten ez bazaituzte, zatoz Sumendi osasunaren auto-gestioaren aldeko elkartera

945 22 65 03

Ez hago bakarririk! Hator Gaytasunara. Informazioa, hitzaldiak eta eztabaidak, psikologi, sexologi eta lege aholkularitza... Bilerak asteazkenero.

945 25 77 66

Gasteizko Esperanto Elkartea. Hizkuntza bikiak maite ditugulako, esperantoz mintzatzen gara.

Zapatari kalea, 29

ALOKATZEN DUT

Aktiboan dagoen harategia alokatzen da. Esparru zabala da eta ondo prestatuta dago.

945 24 08 65 Ana

Geu Gasteiz aldiakaria. Pedro Asua kalea, 2. 3.a faxa: 22 21 53 geugaste@grn.com

PREMIAZKO TELEFONOAK (BETI 945 AURRETIK)

S.O.S. DEIAK:	112	AUTOBUS GELTOKIA:	25 84 00
UDALTAINGOA:	092	RENFE:	23 02 02
INFORMAZIOA:	010	AIREPORTUA:	16 35 91
SUHILTZAILEAK:	16 11 11	ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:	28 20 00
GURUTZE GORRIA:	22 22 22	HIRI-BABESA:	16 11 61
D.Y.A.:	28 10 20	UDALETXEA:	16 11 00
ERIETXEETAKO URGENTZIAK:	24 44 44	FORU ALDUNDIA:	18 18 18

hozkaikuan

Ezuzteko! Udaletxearekin gatzoz berriz ere. Hauteskunde kanpainetan bezala erreflexio tartea eskaini genion Pizarrok zuzentzen duen sailari, baina kasu, buruari buelta gehiegi eman dionik ez dirudi. Agian buelta osoa eman dio eta lehenagokoan geratu zaio.

Tamalez denbora gutxi geratzen zaio Gasteizko bide-seinaleak euskaratzeko. Izan ere, hauteskundeak bertan datoz.



Udalari errieta eta Foru Aldundia-ri belarririk tira... zoriontzeko, baina! Nomenclator du izena Foru Aldundiak argitara berri duen liburuxkak. Azken urteotan izenez aldatu duten herri eta udalerrien kasuak aztertzen ditu liburuak. Tar-tean, noski, euskarazko terminologia berreskuratu dutenen berri ematen digu. Doanekoa da eta, besteak beste, Gazteria Zerbitzuan da eskuragai. Badakizue, Probintzia plazako izkina horretan.

sutondoan

Argi gutxi / Ederla Sanz

Ai, Gabonak... Gabonak! Opariak erosi, turroiak erosi eta erosi, zuhaitza apaindu, jaiotza prestatu, postalak idatzi, ahaztutako lagunei hots egin, zoriondu, zoriondu eta zoriondu...

Ai, Gabonak!



Horrela aritu izan dendariak eta Udaletxeko arduradunak, Gabonetarako kaleak argitzen. Buelta asko eta *boltio* gehiegi!

Jarri zein ez jarri, izan zaitezte itxurosogoak. Eta ahal izanez gero ekologistago ere. Ama lurak ez du barkatzen!

... a! Kaleetako argiak ahazten zitzaizkidan!

Dirudienez, gainera, ez zaizkit niri soilik ahaztu.

Azken orduan, gaizki eta presaka, hain justu etxeko jaiotza muntatzen dugunean bezala, berandu eta txarto!

fotonotizia

termometroa



kalea mintzo

TESTUAK: NAGORE ZEBERIO ARGAZKIAK: ANIA IBISATE



MARIAN PECINA
ETARRIKO ANDREA

1.- Normalean nahiago izaten dut egun hauek familia giroan egoteko erabil-tzea. Gasteiztik kanpo ditut senide gehienak.

2.- Diru gehiegi gastatzen dela iruditzen zait. Beste balore batzuek hartu behar-ko lukete indar handiagoa.

- 1.- Nola ospatzen dituzu Gabonak, familia giroan ala nahiago izaten duzu bidaiaren bat egitea?
- 2.- Normalean egiten ez diren gauza asko egiten ditugu Gabonetan. Damutzen al zara?

GABONAK

Konturatzerako urtea hasi zaigu berriro ere eta honen inguruan ospatzen diren Gabon egunek ere makina bat buruhauste eta poz-tasun eman dizkigute. Denok dakigu Gabonen ondoren hain ospe-ttua den *urtarrileko aldapa* hasten dela, ez ekonomia mailan baka-rrik, baina klaseekin, lanarekin... eta beste hainbat arloekin ere, gehienetan bestelako egunak izaten baitira urtearen bukaerak eskaintzen dizkigunak. Jendeak aukera desberdinak hartzen ditu egoera honen aurrean; batzuk oporretara joan ohi dira, baina gehiengoak familia giroan igarotzen ditu honako egunok.



CAYETANA
ITASLEA

1.- Familiarekin egoten ohitua nago. Batzuek bidaiatzea nahiago dute baina nik ez dut hori gogoko.

2.- Ni ez naiz ezertaz damutzen, hartutako kiloak azterketekin segituan joaten direnez... Ez dit gehiegi axola izaten.



AMAIA ZALDUA
ITASLEA

1.- Nire sendia elkartu egi-ten da, batez ere Gabon Gaua eta Gabon Zaharra igarotzeko.

2.- Gastatzen dudana diruaz damutzen naiz ni, eta janariaz ere bai, nola ez, egiten diren gehiegikeriez orokorrean.



FEDERICO TORRES
LANGILEJA

1.- Nik nahiago dut fami-lian egotea, justu gertuko familia elkartzen gara: aito-na-amonak, gu eta seme-ala-bak.

2.- Nik normalean ez dut gehiegikeriarik egiten, egu-nen batean agian afaltzera joaten gara...



JORGE ROMEA
ITASLEA

1.- Familiarekin egoten naiz Gabonetan. Gasteizen elkartzen gara Gabon eguna eta Urte Zaharra igarotzeko batez ere.

2.- Ni ez naiz ezertaz damutzen, urtean behin ger-tatzen da hau eta ezin da pasatzen utzi.



JOSU
LANGABEA

1.- Familian elkartzen gara egun hauek igarotzeko. Ez dugu beste munduko gauza-rik antolatzen, ahalik eta sin-pleena.

2.- Gehiegi jan izanaz damutzen naiz, potolotu egi-ten bainaz hainbeste turroi etabarrekin. Badakizu!



eguneko



ARTEPAN

Artisau
Okindegia
eta Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

PUBLIZITATERIK MERKEENA
ETA ERAGINKORRENA

GELU
GASTEIZ

PEDRO ASUA, 2. 3A.
22 21 53



BEIRATE
ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: BAT ERE EZ

Mateo Moraza kalea GASTEIZ

Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobea

Aitzogile (KUTXI), 23

1 x 2 =
2

2000 BAGARA
4000 IZAN GAITEZKE



HARPIDEDUN!:

zure aita, ama, anaia, arreba, iseba, osaba,
lehengusua, lehengusina, semea, alaba,
aitona, amona, iloba, berramona, berraito-
na, biloba, aitagarreba, amagarreba,
suhia, erraina, lagun eta ezaqunak...

**EGIN ITZAZU
HARPIDEDUN**

PASAIEZU TXARTELA, BETE DEZATEN

Izen-deiturak _____
Telefonia _____
Helbidea _____
Kodea _____
Herria _____
Jaiotze data _____ Lanbidea _____
Urteroko kuota: 1.500 pezeta
Kontu zenbakia (20 zenbaki)
Entitateak Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia _____

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA
PEDRO ASUA, 2. BA.
01008 TFNOA: 22 21 53

laburrak

Badatorrela bertso-saioa

A steak besterik ez dira falta urtero GEU Elkartek antolatzen duen bertso-saiorako. Izan ere, otsailaren 27an, larunbata, burutuko da aurtean, arratsaldeko zortziretan, ohi denez, Printzipal Antzokian.

Oihane Perea, gure neska-bertsolari-rik onena, eta Oihane Enbeita bizkaitarra izango dira aurtengo ekitaldiko aurpegi berri bakarrak. Gainontzeko lagunak Andoni Egaña, Jon Sarasua, Unai Iturriaga eta Asier Otamendi izango dira. Oraindik nahiko astia geratzen bada ere, jakizue sarrerak 1000 pezetatan jarriko direla salgai, egunean bertan, principal Antzokiki



Jon Sarasuaen bertsoak berriz izango ditugu Principalean entzungai

lehiatiletan. Aldez aurretik erosten dituenak 150 pezetako deskontua izango du. Zuek, hau da, GEUko bazkide zein Geu Gasteizko harpide zaretenek, 650 pezeta besterik ez duzue eman beharko. Hori bai, aldizkariko etiketa erakutsi beharko duzue deskontuaz baliatu ahal izateko.

GEU Elkartearen agendak salgai

Bai, hala da. GEU Elkartek 1999 urteko Agendak kaleratu ditu. Ez dira gehiegi izan argitaratu ditugunak eta ez pentsa ohiko liburudendetan aurki ditzazkezenik, ez. Hortaz, GEU-Agenda haue-tako bat eskuratu nahi izanez gero dei ezazue Elkartearen telefonora (945 22 21 53) eta egizu zure eskaria. Agendaren salneurria 1500 pezetakoa da.

EGUNKARIAREN EKIMENA
Agendak urtero Euskaldunok Egun-

kariak atera ohi dituenak dira. Badakizue: folio erdi baino zertxo bat handiagoak, larruzkoak, beltzak... Aurten, baina, Euskal Herriko hainbat elkarte-ekin Euskaldunon Egunkariak izandako elkaremanaren ostean, Egunkariaren logotipoaz gain dagokion elkartearen ikurra ageri da liburuan. Horrela, GEUrean Egunkariaren eta GEU Elkartearen marrazkiak ageri dira. Logotipoan urre kolorean ageri dira eta, esan bezala, Agenda larru beltzekoa da. Dotore-dotorea, beraz.

ITVRRRIETA

ITVRRRIETA

ARRAGA AUZOA - Tfnoa: (945) 44 53 85

ARAMAIO

...ARAMAIO...

Untzilaitz 1999ko estreinako saioa

XX. mendeko azken urteari hasiera emateko Untzilaitz mendia aukeratu dugu, Kike Korresen gidaritzapean benetan ederra den ingurune honetaz gozatzeko. Txango honen berri alde aurretik izateko Miguel Angulok bere Euskalerriko Mendiak izeneko liburuan zehazten dituen gora-behera batzuek hurrengo lerrootan aipatuko ditugu:



"Untzilaitz (941) Durangoko Haitzetan bigarrena da Iparraldetik gatzela. Bere Iparraldeko aurpegiak, helgarriena izanik, zuzenean menderatzen du Mañaria 750 metrotako altueratik, eta Ekialdeko aurpegia, bertikalena, Atxarteko zintzuraren gain amiltzen da, 650 metrotatik. Bere ertzen forma akzidentatua oso ondo ikusten da Urkiolamenditik Hegoalderuntz, bereziki Urrestei-Sakukogañe ertza. Honek arku zirkular bat deskribatzen du, Atzarteko eskalada eskolako paretak osatuz.

Eskaladan aritzen direnentzat, Untzi-

laitzek edozein mailatako igoera bia ugari eskaintzen du, baina txangolari arrunt baten-tzat ibilbide seguru bakarra zera da: Ipar-Mendebaldeko tontor bikainaren gainean dagoen Oraietako (540) lepo txikira igo, ondoren Ipar-Ekialdeko isurialdeko malda belartsuetatik gailurrera heltzeko. Beste ibilbideak arrisku-tsuagoak dira, eguraldi

onaren segurtasunik gabe ibiltzeko beharokoan batipat".

Abenturazaleentzat ere badu mendi honek zenbait bitxitasun Angulok dioenez: "Untzilaitzen Ipar-Ekialdeko punta, Sakukogañe (859) izenekoa, helgarria

da tontor gailurreria arretaz jarraituz. Haitzulo batez zula-petua dago, eta bertatik mendi osoa alderik alde zeharkatzen duten galerietara irits daiteke".

Halere, GEUREKIN MENDIRA taldeak antolatzen duen ibil-

bidean ez garela alferrikako arriskutan ibiliko, ziur izan. Anima zaitetz!

IÑAKI MYNEZ. DE LUNA



GEU rekin MEN DIRA

urtarrila

Untzilaitz
(934m)

Elosu

Ibilbidea: Urkiola mendatetik behera kotxea, eta Mañariatik igoko da.

urtarrilaren 17an

goizeko 9:30etan Txapela tabernan

Kotxetz joango gara.


Edozein argibidetarako deitu telefono honetara:

945 14 01 58 (Kike)

GEU elkartea eta
Geu Gasteiz aldizkariaren
ekimena



berri berriena
datozen denborekin bat



**HELBIDE
BERRIA**

geugaste@grn.es

g e u g a s t e i z a l d i z k a r i a



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA



**langile guztiak euskaldunak
IKASLE GUZTIAK EUSKARAZ**

TOKI EDER IKASTOLA

Aurrera darrai Euskharanen eskaintzak



Duela zenbait hilabete proiektu bezala auzetu genizuen. Dagoneko errealitatea da, eta zer nolakoa! Aurrera darrai, bai, Euskharan Kultur Taldea eta haziz doa bere eskaintza. Hona hemen hiriko ekialdean euskara kalera atera nahi duen elkartearen lanaren adibide batzuk:

- Trikitixa, pandero, txalaparta, bertso-gintza, dantza, alboka eta 5, urratsetik gorako helduentzako mintzapraktika edo Berbetan tailerrak.

- Gazte eta helduentzako antzerki tailerra.

Abenduaren 16tik urtarrilaren 6ra bitartean Euskal Mitologiari buruzko Aste Kulturala egin dute. Bertan Olen-

tzeroren eskutik txango magiko bat burutu zen abendua ren 24an. Bi

egun lehenago jaialdi erraldoia burutu zen, Bai euskarari lelopean. Erakusketa batek Aste Kulturala apaindu zuen.

Beste zenbait ekimenen artean Txaranga bat eta jaietarako Kuadrila bat sortu nahi du Euskharanek, auzoko euskaltzaileek osatua. Interesatuak bere izena eman dezakete Amaia zentroan, urtarrilaren 17ra arte. Animo, eta horrela segi dezazuten!



Euskal haizeak artezko errotak higiaraziko ditu

Euskal Herri osoko euskara elkarte eta herri aldizkariak jasotzen dituen Topaguneak Kultur Errota deritzon egitasmoa abian jarri zuen iazko azaroan. Proiektu erraldoi honen helburua Euskal herriko kultur-gile guztiei hasi berri diren artistei zein ibilbide profesional luze bat dutenei-euren lana zabaltzeko zirkuitu bat eskeintzea da. Euskararen normalizazioan eragile izan nahi duen proiektu honek hamaika euskara elkarte jarriko dute eszenatokia eta Euskalgintza Elkar-lanean Fundazio eta Eusko Jauriaritza-ren babesa du.

Kultur Errotatik 25 artista inguru igaroko dira eta artista desberdinen kantak

di edota errezitaldiz gozatzeko aukera izango dugu. Dena den, Topaguneak azpimarratu duenez zirkuitu berri honetan belaunaldi berrien aldeko apostua egin nahi da. Hori dela-eta euskara elkarteek zirkuituan izango duten bul-tzatzaile lana oso garrantzitsua izango da; herri bakoitzean musikaren arloan hasi berri diren gazteei herritik kanpo euren eskaintza zabaltzeko aukera eman nahi baitzaie.

Gasteizko lehen saioa urtarrilaren 29an, ostirala, izango da Floridako Kultur Etxean. Saioa Ander Lipusekin hasiko da, arratseko zortziretan. Lipus antzezlea eta Bilboko Mina Espazio Kultur taldeko kide da. Ondoren Mixel Ducau eta Karoline Philipsek osaturiko bikotea eszenatokitutako da.

Horixe urtarilekoa, baina ez ahaztu ekainera bitartean beste bost saio egin-gio direla. aldizkari hurrengo aleetan horien guztien berri emango dizuegu.

AÑANAKO EUSKALTZALE-AK ERTAMERIKAREKIN BAT
Zenbait alditan Euskara Añanan Mingainean elkartaren berri eman dugu hemen. Añana eskualdeko euskaltzaileak batzen dituen Elkarte da EAM. Gogoratuko duzue, esaterako, irailan Gesaltzan egin zuten festa handia (aldizkaria kolaboratzaile izan zuena). Bada, EAMek iazko Biltzar Orokorra egin du aurki eta zenbait erabaki garrantzitsu hartu zituen: Batetik, Angostoko Santutegia izango dela Añana Euskaraz 99 festa jasoko duen ingurunea, irailaren 19an. Eta bestetik, Gesaltzako festak zorroa bete diru utzi zenez, Langraizen antolatu ohi duten Kotillioean lorturiko diruaren %50a El Salvadorreko zubi bat berreraikitze bideratzea. Diru sarreraren beste erdia oraindik zehaztu gabeko beste proiektu batera bideratuko du ere EAMk.

HAUEK ERE BAI...



esan zeuk ere
BAI EUSKARARI!!
izena eman
euskaltzari eta barnetegietan

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK berreskuraturiko egurrez eginak eta OSAGARRIAK

artesan lanak, lorategi eta barrualdeko-proiektuak egiten ditugu

AZAROAREN 15A ARTE

%30 eta %50eko beherapenak

Errementari (Herre) 38, behea tfnoa.: 25 25 03 01013



ALTZARIAK

bahiketa

ASIER PZ. DE KARKAMO

Bederatzi izan ziren, bederatzi, **Flandes**en egunotan desagerturiko **San Joseak**. Lehena desagertu zenean, ilxuraz, inor ez zen larritu, **San Jose** asko direlakoan, gaztetxoren baten adarjotzetat hartu baitzuten gertakaria. Bigarrena, hirugarrena eta, zer esanik ez, bederatzaigarrena faltan bota zituztenean, ordean, antolaturiko talde terroristarik jazoeraren atzean ez ote zegoen galdegiten hasi zitzairen poliziar duradunek beren buruei.

Hartara komunikatu batek susmook baieztatu eta ezeztatu zituen era berean. Ez, ez zen inolako talde terroristarik

ekintzaren arduraduna; bai, osteran, antolaturiko taldea. **VVBAM** hitzen azpian gordetzen den talde femi-

nistak 9 **San Joseak** bahituak izan zirela ageri zuen. Ezkongabeko emakumeek osatutako taldea omen da **VVBAM**, nahiz eta **Belgikako** agiritegi judizialetan holako elkarteren berririk ez duten. "**Maria** emakume independentea zen. Gure eskakizunak onartuak izan artean **Joseak** bahiturik mantenduko ditugu. Emakumeak dagoeneko ez dira ez gatibu, ezta sexu-objeto ere".

Horrela zioen komunikatuak. Gatazka sexuala da, hortaz, **Jesusen** bederatzi aiten bahiketaren oinarrian dagoena. Bizitzaren paradoxak! Ama birjina eta aita bahitu sexuala ditu **Jesus** gaixoak. Arazo larria, bada, haurtxoarena. Gainontzeko **San Joseei** bizkartzaitza ezarri behar ote zaien da egunotan hizpide **Belgikan**. Iturri sexuala duen gatazka politikoa da, alegia. ♦



Oilarra eta oilaskoak izan dira aurtan bisitari ugari baina salmenta eskasak izan dituen Gabon-Azokako errege

Oilarrak, jaiotzak eta argirik gabeko kaleak

Badatozela! esan eta ustekabeen joan zaizkigu Gabonak. Batek ikusminez hartzen ditu urteko azken hatsaldiak, egunok oporretan igarotzen zitueneko garaia gogora ekarriz. Argi dago, (sasi)heldutasunera iristen garenean, beste lente batzuekin ikusten direla gauzak eta, Olentzerok opariak mara-mara dakarzkigunean ere, gure pozak haurrenarekin zerikusi izpirik ez duela.

Nik, bederen, argi baino argiago daukat hori; batzuek argirik gabe oporrak ez direla oporrak argi duten bezela. Hori duk/n fededun, **Jesusen** jaiotzan

sinisteko kaleak bete argi behar dituan/nana! Hamaika korapilo argiak zirela-eta, horrenbeste buruhauste eta, azkenean, galtzaile bakarra: ingurugiroa. Zenbat esaldi inozo, zenbat hutsezko adierazpen entzun genituenak argien auzia zela eta. Inor ez zen bere iritzia eman gabe geratu.

Presoenean denak horren animotsu ari-tuz gero aspaldian genituen etxean zigorraren hiru laurdenak beterik espetxean segitzen duten preso gasteiztarak. Aspaldiko aldarrikapena da hori ere.

Ehunka bisita jaso ditu aurtan ere Florida Parkeko Jaiotzak


Egunotan, behintzat, inoiz baino jende ugariago bildu da presoen hurbilketa eskatu asmoz. EAJ, EA, IU eta HB-EHko ordezkariak eskutik (edo pankartatik) helduta ikusi genituen Andre Mari Zuria-ren Plazan. Hura izan zen, niretzako, Gabonetako notizia, etorkizunean euskaldunok aurrera egingo dugula adierazten baitigu.

Baina ez da hori testu honetako gaia, fedegaiaz aritzeko hartu baitut idazluma (informatikoa, noski). Jaiotzak, nola bestela?, protagonista izan dira egun hauetan. Gure etxekotik hasita eta Florida parkekoan amaitu. Figura berriak estreinatu ditu aurtan horrek eta, ohi bezala, ehundaka bisita izan ditu aurtan ere. Karmenen Parrokia bisitatzea tokatu

zait niri eta, zinez, harrituta irten nintzen, oso gauza politak ikus baitaitezke bertan.

Bukatuko dut, bada, eta horretarako Gabon-Azoka aipatu baino ezer ez egokiago. Ez da nik asmatutakoa, artisauek beraiek adierazi baitzuten jende ugari baina salmenta gutxiko Azoka izan dela aurtengoa. Gabonetan, osteran, salmenta ugari eta fededun gutxi.

TESTUA: ASIER PZ. DE KARKAMO
ARGAZKIAK: EDORTA SANZ





Gabonotan Olentzero, ohi bezala, ez da etxe guztietara heldu. Epaileen oztopoak behin eta berriz, bata bestearen atzetik, familia anitzeko senideak ehundaka kilometrotara giltzapean mantenduz. Lau preso gasteiztarrek dagoeneko zigorraren 3/4ak bete dituzte eta legez, kalean egon beharko lukete. Egoera politiko berriak, ETaren su-etena dela eta, ez die ezer berririk ekarri presoei eta hauen sendiei. Hala ere, itxaropena ez dute falta, gutxi barru, elkarri besarkada bero bat emateko.

Nene, Txomin, Kuku eta Darta Gasteizko kaleetan ikusteko garaia da

Izaga anaiek, Jose Manuel Gimonek eta Saturnino Lopezek zigorraren 3/4ak bete dituzte.

Xabier eta Rikardo Izaga anaiek, Jose Manuel Gimonek eta Satur Lopez Domaikak, laurak Gasteizko preso politikoak, kalean egon behar lukete beren zigorraren 3/4ak bete dituztelako jada. Egoera honetan ehun euskal preso politiko baino gehiago dagoenez, euren senide eta lagunek legezkontrako egoera hau ezagutarazi nahi diote euskal gizarteari.

Jose Angel
Cuerda (EAJ),
Rakel Peña (EH),
Mikel Mintegi
(EAJ),
Marisol Bengoa
(IU)... Lizarrako
alderdiek bat
egin zuten
Gasteizen HIRUK
antolaturiko
konzentrazioan

Gure hirian HIRU Plataforma, 1997ko azaroan sortua, errebindikazio honi helduz, gogor aritu da Gasteizko gizarteak gatazka honetan esku har dezan. Euskal Herri osoan, HIRU plataformaren modura, ehundaka lagun biltzen da astero, presoen askatasuna lehenbailehen lortu nahian lanean jarduten dutelarik. Plataforma hauek euren kabuz funtzionatzen dute eta ideologi desber-

dinetako partaideez daude osatuta.

Epaileak eta zigorrak

Kode penalak 90. artikuluan hiru baldintza ezartzen ditu baldintzapeko askatasuna erdiesteko: 3. gradu sailkatua egotea, zigorraren 3/4ak bete izana, edo jarrera ona erakustea espetxearen barruan. Preso hauek 1. gradu daudenez klasifikaturik eta

axular

LIBURUDENDA

Arka plaza, 11 - 01005 GASTEIZ



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 43 00 73



**SATURNINO
LOPEZ
DOMAIKA**

DARTA

Jaiotze data:
1958-1-8. Gasteizen.
Espetxeratutako
data: 1981-3-8.
Zigorra: 30 urte.
Lehenengo gra-
duan sailkatua.

Espetxean egindako lanei eta burutuko ikasketei esker dagoeneko konplitu ditu 3/4ak.

Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiak ez du onartzen 3/4ak beteta izatea.

Albaceten espetxeratua, Carabanchel, Soria, Alcalá Meco, Herrera de la Mancha eta Ocaña presondegiak ezagutu ditu.

Espetxean egindakoa: Unibertsitatean sartzeko azterketa gainditu, Irakasle Eskolako ikasketak hasi, U.N.E.Deko euskararen oinarritzko titulua gainditu, eta gaur egun EGA titulua ateratzeko ikasten ari da.

Hamalau gose greba burutu ditu.

portaeraren erabakia epaileen eskutik geratzen denez, 3/4ak betetzearena irtenbide bakarra suertatzen zaie askatasuna eskatzeko. Gero epaileak preso 3. graduaren sailbanatu eta presoari buruzko iritzia oneko txostena sinatu beharko luke.

Zigorren 3/4ak betetzeko espetxean igarotako denboraldiaz gain, presoak lortu luditzea gehitu beharra dago; hau da, kartzelan egindako lanari edota ikasketeei esker luditutako egunak. Maiz presoek atera kontuak ez datoz bat epaileak egiten dituenekin eta horrexegatik, nahiz eta 3/4ak beteta izan, epaileak ez du onartu ohi.

**JOSE MANUEL
GIMON
SEBASTIAN**

KUKU

Jaiotze data: 1965-
9-1. Palencian.
Espetxeratutako
data: 1987-11-4.
Zigorra: 21 urte.
Lehenengo gra-
duan sailkatua.

Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiak onartzen dio 3/4ak konplituta izatea. Gaur, baldintzapeko askatasunaren eskariaren Espetxeetako Zaintza-Epailearen erantzunaren zain dago. Segovian espetxeratua, Carabanchel, Alcalá Meco, Herrera de la Mancha, Ciudad Real, Segovia eta Valdemoro kartzelak ezagutu ditu.

Espetxean egindakoa: Eskola-graduatu titulu, Batxilergo Bateratu Balioanitz, Unibertsitatean sartzeko ikastaroa, eta Geografia eta Historiako hainbat ikasgai.

Bost gose greba burutu ditu



jose manuel gimón

Historia eginez

1996ko urriaren 3an: Eusko Legebiltzararen Giza-eskubideen Batzordearen akordio batean -7. puntuan- zigorraren 3/4ak bete dituzten presoentzat legeriaren irakurketa positiboa egin dadila eskatzen da.

1997ko azaroan: HIRU Plataforma, preso senideez eta lagunez osatua, eratzen da Gasteizen, 3/4ak bete dituzten Gasteizko hiru preso askatasuna exijituz. Gaur egun, Gasteizko lau preso dira egoera honetan daudenak.

1997tik aurrera: HIRU Plataformako kideek Gasteizko gizarte-talde zein pertsona ospetsuei laguntza eskatzen diete.

1998ko ekainaren 26an: HIRU Plataformaren lehenengo agerpen publikoa gizarteratzen da.

1998ko abuztuaren 1ean: HIRU Plataformak manifestapen ixila konbokatzen duen Gasteizen. Positiboki baloratu zen.

1998ko abenduaren 19an: konzentrazio bat burutu zen Andre Maria Zuriaren Plazan.

**RIKARDO
IZAGA
GONZALEZ**

TXOMIN

Jaiotze data:
1959-1-11. Gasteiz.
Espetxeratutako
data: 1986-2-27.
Zigorra: 30 urte.
Lehenengo gra-
duan sailkatua.

Espetxean egindako lan eta burutuko ikasketei esker dagoeneko konplitu ditu 3/4ak.

Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiak 3/4ak beteta izatea onartzen dio. Gaur, baldintzapeko askatasunaren eskariaren Espetxeetako Zaintza-Epailearen erantzunaren zain dago Rikardo.

Badajozen espetxeratua, Alcalá, Herrera de la Mancha (bere anaiarekin, Xabier Izaga, egun gutxi batzuk eman zituen) eta Puerto de Santa Maria espetxeak ezagutu ditu.

Espetxean egindakoa: EGA titulua, Filosofian lizentziatu, Doktoretza hasi, frantse-
sa, eta egun Magisteritza ikasten ari da.

Gose greba ugari egin ditu bere eta preso senideekin aldarrikatzeko.



rikardo izaga



**XABIER
IZAGA
GONZALEZ**

NENE

Jaiotze data:
1960-6-21. Gasteiz.
Espetxeratutako
data: 1981-3-26.
Zigorra: 30 urte.
Lehenengo gra-
duan sailkatua.

Kartzelan egindako lanei eta burutuko ikasketei esker dagoeneko konplitu ditu 3/4ak. Gaur egun Cáceres-ko espetxean dago. Carabanchel, Puerto Santa Maria, Herrera de la Mancha... kartzelak ere ezagutu ditu.

Espetxean egindakoa: Euskarazko D titulua -gaur EGA-, Euskara itzultzaile -B titulua-, Magisteritzan lizentziatu, 1996ko Araba Euskaraz-ko abestiaren hitza eta musika konposatu, Txalaparta editorialera-ko hainbat itzulpen liburu argitaratu, eta azkenik, aurtengo Durango Azokarako 'Atzo irakurtzeko gaur izkiriartua' poema liburua argitaratu eman Susa-rekin.

Zortzi gose greba baino gehiago egin ditu.



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ



Egoera politiko berria

ETAren su-etena dela eta, itxaropenezko ate txiki bat ireki zaie familia hauei guztiei. Nolanahi ere, HIRU Plataformak Geu Gasteiz aldizkariari adierazi zionez, gu su-etena baino lehenago azaldu ginen. Eskatzen dugunak ez dauka zerikusirik su-etinarekin. Gainera gure presoek egoera berean jarraitzen dute. Ez da ez aldaketarik, ez mugimendurik egon. Guri, momentuz behinik behin, egoera berriak ez digu ondorio positiborik ekarri. Ez dugu presoekiko *keinu* bat egitea nahi, justizia kontua baino ez da...

Euskaraz Bizi Taldea, Bagare Euskal Tokia, Euskal Herrian Euskaraz, IKA, Gasteizko Bertso Eskolako kideak, Ekilore Dantza Taldea, Araba Dantza Taldea, Adurtza Dantza Taldea, Ikasle Abertzaleak, Sindicato de Estudiantes de Euskadi, DUINA, SINTRA-RABA (Arabako Garraiolarien Sindikatua), Ezker Sindikala, LAB, STEE-EILAS, ESK-CUIS, Blusen Elkartea, Mugen Gaintetik, PIPI (Emakume Gazteen Taldea), Emakume Ta Justizia, EGIZAN, Emakume Langilearen Defentsarako elkartea, LAB Emakumeak, Salhaketa, Elkarri-Araba, Eus-

Jose Angel Cuerda -Gasteizko Alkatea-, Iñaki Landa -Zeledoa-Juanito

Oiarzabal, Patxi Bisquert, Juanma Bajo Ulloa, musika talde anitz -La Polla, Potato, Zazpi Eskale, Doctor Deseo, Kontraio Taldea...-, Gari, Josu Zabala, Bingen Mendizabal... Horrela 1, 2, 3, 4...

...100 pertsona zerrendatu arte, HIRU Plataformaren helburuekin bat datozenak. Lagun zehatzez gain, jarraian aurkezten dizuegu plataforma honekin bat datozen Arabako kolektiboen zerrenda:

kadiko AFAPP, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Senideak, Herri Ekimena, Alde Zaharrako "Gasteiz Txiki" auzo elkartea, Txagorribidea auzo elkartea, Zaramagako Bizigarri auzo elkartea, Aranbizkarrako Zazpigarren Alaba auzo elkartea, Gasteizko Gazte Asanblada-Gaztetxea, EGI, LAB Gazteak, Jarrai, Ezker Batuaren Gazteria Saila, Gazte Abertzaleak, KEM-MOC, Gasteizkoak, Kakitzat, Gasteizko AHT-ren Aurkako Asanblada, Askapena, Eguzki, AZTA (Alde Zaharrako Tabernen Elkartea), Federico Engels Fundazioa

TESTUAK ETA ARGAZKIAK: RAUL SAEZ DE BURUAGA



"...seeing in the rain"
("Europear ikusten")

zeren eta Multilens* ukipen-lenteen packa erostean, zira alderantzgarri hau oparituko baitzugu.

14.900 pta. besterik ez



ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

MENDIA OPTICA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Larunbat arratsalde zabalik: 5.00 - 8.30



*Hilero aldatzeko diren 6 Multilens lentsketako 2 kaxa eta 360 ml. soluzio bakarreko 2 pote barne. Eskaintza honek izakinak ahistu arte balio du. Bezeroaren arretarako telefonoa: 900 34 35 36. www.multiopticas.com

Urtarrilaren 15aren inguruan abiatuko da Eneko bizikleta gainean Istanbula iristeko asmoz. Euskal Herria, Frantzia, Italia, Bosnia, Grezia eta Turkia joatean, eta Hungaria, Bulgaria, Alemania, Polonia, Danimarka, Suedia eta Britania Handia **hamar hilabete eta gero** etxerako bueltan. Ibilbidean zehar, giza eskubideen inguruan argazki lanak, eguzki eklipse bat tartean, eta milaka kilometro pedalei eraginez.

TESTUAK: LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI ARGAZKIAK: EDORTA SANZ

eneko etxebarrieta

atorren urteko urtarrila eta urria bitarteko epea bizikleta gainean igaroko du Enekok. Gasteiztik irtenda helburua Istanbul da. Hara iristeko Europako hegoaldea zeharkatuko du, kostaldetik gehienbat. Bueltako bidean iparralderantza joko du, Norvegiaraino iritsiz. Hau guztia, behintzat, Gasteizen egindako planak betez gero, beldurra ematen dit ibilbideari buruzko zehaztasun handiak emateak, errepidean nagoela beste norabait joatea bururatzen bazait ibilbidea egokituko dut inolako arazorik gabe.

Ez du eperik markatu Istanbulera heltzeko, ez daki non egingo dituen geldialdiak, ezta leku bakoitzean zenbat denbora emango duen ere. Egunik egun egin beharreko kilometroak ikusteko dagoela, eta bidearen arabera izaten dela azaldu du: Ibilbidea malkartsua bada ezin egin daiteke kilometro asko; dena den, Transilvania eta Bosnian izan ezik ez

dut kasik mendirik aurkituko, ibilbide laua prestatu dut-eta. Nahiko argi dauka, hori bai, abuztuaren hasieran Bulgaria aldean egon nahi duela, bertan oso ondo ikusiko den eguzki eklipsea egongo baita abuztuan, Astrologia izugarri dut gustuko eta eklipsea ikaragarria izango da, eguerdian ilun-ilun geratuko da dena...

Lo alberge eta kanpin dendan egingo du; batzuetan hotzak behartuta albergeetara jo beharko duela jakin badaki, baina gainerantzean kanpinetan edo denda jartzeko lekua aurkitzen duen edonon pausatzeko asmoa du.

Diru Bila

Etxebarrieta ez da turista moduan ibiliko, baina hamar hilabetez etxetik at egotea garestia dela

onartu du. Jan eta lo derrigor egin behar dut eta pedalei eragiteko ezin daiteke edozer gauza jan. Hau dela eta diru bila dabil Eneko, eta dagoeneko laguntzaileak aurkitu ditu: BH lantegiak bizikleta eta behar dituen jantziak eman dizkio, 'Euskalerriaren Adiskideen Elkartea' rekin tratuan dabil Europako giza eskubideen inguruko argazki lan bat gauzatzeko, zenbait argazki erakusketa atundu ditu,...

'Euskalerriaren Adiskideen Elkartea' k giza eskubideen gainean lan egin nahi du, eta Enekoren argazkiek Europako gaurko egoeraren berri eman dezakete. Izan ere, ezagutu jendearen gomuta eta bizi izandako esperientziekin batera, argazki ugari ekarri ohi ditu bidaietatik.

Jendea

Europako hegoalde osoa zeharkatuta bestelako paisaia, giro eta jendea ezagutzeko parada izango du Enekok, eta argazkigintzaren ikuspegitik oso esparru zabala hartu ahal izango duela badaki. Enkarguz egin beharreko argazkietatik aparte, lan berezi xamarra egin nahi du gasteiztarrek:

Kanposantuen inguruko argazki lan bat egitea otu zitzaidan. Hilerriak gustuko ditut. Ez dakit zer duten, baina argazkietarako zerbait berezia bai.

Lehengo batean San Salvadorreko hilerri-tik pasatzean, herrialde eta erlijio desberdinen kanposantuen inguruko argazki lan bat egitea interesgarria izango zela otu zitzaidan. Niri hilerriak gustatzen zaizkit; ez dakit zer duten, baina argazkietarako zerbait berezia bai.

Ertamerikan zehar egindako aurreko bidaietatik ekarri argazkietan jendea da gai nagusia, batez ere Kuban egindakoetan. Europan, aldiz, badi-rudi kamarari zuzenean eta irribarrez begiratzen duenik harrapatzea ez dela erraza. Ertamerikako jendea berezia da oso, argazkietan ateratzea gogoko du. Europan askoz hotzagoak gara, hirietakoak bai behintzat, herri txikietan ez hainbeste....



Adi
egon
aldizkariko
hemendik
aurrerako
aleetan,
hilerio
Eneko
Etxebarrietaren
bidala
zoragarri
honen
kronika
zuzena
izango
baituzue

Ertamerikan

1992an iritsi zen Eneko Etxebarrieta Ertamerikara lehen aldiz. Hiru hilabetez Nikaragua, Honduras, El Salvador eta Kuban barrena ibili zen motxila bizkarrean hartuta, Mitch hurakanak txikitu dituen herri horietan guztietan egon nintzen.

El Salvadorren FMLNko gerrillarekin kanpamendu batean bizitzeko aukera izan zuen, San Salvadorren

kazetari zebilen langun batek kontaktuak eman zizkidan eta ia besterik gabe onartu ninduten, azaldu du gasteiztarrek. Bake akordioak sinatu berri zituzten Eneko FMLNkoak aurkitu zituenean, baina egoera arriskutsua zen oraindik ere. Nolanahi ere, oso garai aberasgarria izan zela onartu du Enekok: Esperientzia polita bezain latza izan zen..., gogorra. Asko ikasi nuen beraiekin. Ez dakit jende hori nola definitu. Ni El Salvador eta Nikaragua artean nenbi-

len eta nire gauza guztiak beraiekin uzten nituen, baita neraman diru guztia ere... Ez zen dirutza izugarria, baina bai beraiek beren bizitza osoan ikusi ez dutena seguru asko, eta ez zuten motxila ikutu ere egin.

Gerrilla utzi eta Kubara jo zuen gero; hantxe egin zituen kontaktuekin bertako kazetari eta idazleen elkarteak argazki erakusketa bat antolatu zion eta, bide batez, urtebete beranduago itzultzeko aitzakia eman. Bidaiaaren bigarren atal honetan hiru hilabetez egon zen Eneko Kuba punta batetik bestera bizikletaz ezagutzen.

Manu Leginecherekin mintzatuko naiz herrialde horietan guztietan ondo baino hobeto dagoelako jantzita eta agian ideia edo aholkuren bat eman baitie zadake

Kuba eta geroko azken bidaia Quebecera izan da, Karibeko haize epeletik elurretara. Montrealean ingelesa eta frantsesa ikasteaz gain lanean aritu zen. Hori bai, bidaiatzeko zaletasunak bultzatuta, iparralde guztia autostopaz zeharkatzeko ere aurkitu zuen beta.

Prestakizunak

Istanbulera abiatu aurretik bi urte inguru pasatu ditu Enekok Gasteizen eta, dagoeneko errepidera ateratzeko irrikitan,

azken prestakizunekin dabil: ekipoa jaso, dirua bildu... Asmoen artean

Manu Legineche-rekin hitz egitekoa azpimarra daiteke. Oraindik ez du hainbat bidaia burutu dituen idazlearekin berba egitea lortu, baina kontaktua bai: berarekin egon nahi dut herrialde horietan guztietan ondo baino hobeto dagoelako jantzita

Ikus dezakezuen ez herrialde gutxi utziko ditu Enekok Europan zehar egn beharreko bidaian bisitatu gabe.

eta agian ideia edo aholkuren bat eman diezadake.

Horretaz gain, abiatu aurretiko azkenengo bi erakusketak prestatzen aritu da bidaztia, joan berri zaigun urteko abenduan zehar Rey Louis eta Maraño tabernetan ikusi ahal izan ditugunak hain zuzen. Erakusketa hauetako argazkiak salgai izan dira, bildutako diru guztia ondo etorriko zait, bidaia lasaia egiteko.



piti-pata

txikiaren orrialdeak

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA



GURE

PAILAZOAK

ETA

GURE



Naiarek 10 urte ditu

Kantu kantari

Nork dio kanturena afari ondoko
postrerako bakarrik uzten dela?



... Saskibaloia, eskubaloia, gimnasia, igeriketa... abesbatza!
Bai... zergatik ez? Naiare, 10 urte baino ez dituen arren, nahi-
ko beteranoa da arlo honetan, bere bizitza erdia Olabideko
Abesbatza ofizialean daramalako. Astean bitan 10-17 urte
bitarteko kantariak landu ohi dute eztarria.

Baina hau ez da dena, bere gustuko abestiak dutxan ere lan-
tzen ditu Milaneko Operan balego bezala. Tira.. Ze nolako
abeslari fina!

HILEKO HILEKO HILEKO LAGUNA HILEKO HILEKO HILEKO



Baserrian

Takolo, Pirritx eta Porrotx

MATXINSALTO, 1998.

45 MINUTU.

Euskal Herrian disko merkatua urria den arren arlo desberdinak baditugu, arrakastatsuenetako bat txikienei zuzendutakoa delarik. Aurtengo gabonetan urtero bezala Takolo, Pirritx eta Porrotx-en azken lana heldu zaigu. Betiko formula, betiko eredua, ikastoletako umeen artean oso entzuna izango den Baserrian topatzen duguna. Zeozer berri? Bai, oraingoan baserria bihurtu da diskoaren protagonista nagusi. Goazen ba kanta eta ipuintxo bidez baserriaz goatzera!!!



Zein animotsu aritu ziren Takolo, Pirritx eta Porrotx gure pailazorik gogokoenak Euskararen Kontseiluak Mendizorrotzan antolaturiko euskaren aldeko festa handian. Nola zutitu ziren haur guztiak beren kantak abesteko. Baita haurrak ez direnak ere!

Testuak: Itziar Uriarte

Argazkiak: Edorta Sanz



Infernuan su
eta bero
handia dago.
Han jende ona
eta langilea bizi da
eta hara joango
nintzateke egun
batzuk pasatzera.

ZER DA ZU



INFERNO


geugenjeim

ODON DE APRAZ 7KASTOLA (6-7 URTE)

Eider Asier



URETZAT...



ARNUA



Han bizi den
jendea zoratuta dago.
Dena gorria da
eta biztanle guztiek
daukate buztana.



Behin batean
infernua ikusi
nuen eta hantxe
txabola txiki
bat zegoen.

Kangeuroak

HAURRAK ZAINTZEN DITUGU

GOIZEZ		LORENA	27 10 13
NEKANE	26 91 53	MONTSE	26 78 12
EDUARDO	14 21 99	AINARA	23 38 28
LEIRE	27 32 81	TXARO	28 08 85
LORENA	27 10 13	MAIDER	24 90 62
AINARA	24 04 42	ARRATE	25 64 01
ANA	26 65 95	PATRIZIA	13 93 37
ERLETE	29 96 50	UXUE	24 37 11
ESTITXU	27 65 07	ASTEBEVRVAN	
ARRATSALDEZ		OLATZ	25 61 20
OIHANA	25 30 35	MONTSE	26 78 12
AINZANE	27 09 64	ARRATE	25 64 01
IRATXE	24 51 81	PATRIZIA	13 93 37
AINARA	23 38 28	LEIRE	23 12 23
LORENA	27 10 13	JOSE ANGEL	27 62 14
PATRIZIA	27 78 19	SAIDA	26 58 05
LEIRE	23 12 23	IDOIA	24 47 79
MAIDER	24 90 62	MAIDER	24 90 62
ESTITXU	27 65 07	BELEN	13 65 10
GAVEZ		MONIKA	13 86 21
ESTHER	27 34 57	ITZIAR	13 86 21
IDOIA	24 47 79	M. JESUS	13 54 35
		ESTITXU	25 99 60

ATAL HONETAN AGERI NAHI BADUZU DEI
HONAKO TELEFONO ZENBAKIRA:
945 22 21 53



geu gasteizek ez du sail
honetan sortzen diren
haurren ardurarik hartzen

Kangeuroak

Haurrak zaindu nahi badituzu Geu Gasteizek
lehiu ezinhobea eskaintzen dizu. Deitu gure
telefonora eta goiko zerrendan ageriko zara.
(945 22 21 53)

nork esan du guk marrazten ez dakigunik!?

Asier

Imanol

Ibai



hizkuntza

*Bi mila lagun inguru
Mendizorrotzara sartu ezinik
geratu ziren abenduaren 26an
larunbatean Kontseiluak
antolaturiko festan.
Bai gurean, baita gainontzeko
lau estadioetan,
arrakasta erabatekoa izan zen.*



Gorka Knörr, Betagarri, Abel Enbeita, Takolo, Pirritx eta Porrotx... Hori hemen, Gasteizen. Beste lekuetan ez ziren, ez, makal geratu: Mikel Laboa, Exkixu, Anje Duhalde, Erramun Marti-korena, Ixiar Oreja, Benito Lertxundi, Kashbad, Skalariak...



Baina ez da hori guztia. Hamarnaka gaitajole, ehundaka haur kantari, milaka dantzari eta, garrantzitsuena, ehun eta hogeimilatik gora bihotz euskaldun. Batek ez du sekula ahaztuko arrats hura.

Batzurentzat muntaia gehiegizkoa izan zen. Izan ere, teknikoei ezer leporatu ezin zaien arren (lan paregabea egin zuten), ekitaldi txikiagoarekin ekin zitezkeen akatsak ageri ziren. Ez du axola.

Nolanahi ere euskaldunok eskua elkar ematen dugunean zer egiteko gai garen demonstratu genien Espainia zein Frantziari, baita UNESCOri ere. Mezua jaso dezatela!

TESTUA: ASIER PZ. DE KARKAMO
ARGAZKIAK: JOSEBA OLALDE



Saramagora heltzeko gida

Saramagora iristea ez da zaila. Nahikoa da bidezidorrez bidezidor ibiltzea, bideska eta errepide ahaztuetan menturatzea, betiere asfaltatu gabeko bideetan. Galtzerik ez. Saramagotik gertu, inoiz gizaki izan eta Hiroshimako argi itsugarriaren pean desagertu zen haren itzala dago. Hon-damendi beldurgarri horren erdian bada, halere, itxaropen berde baten printza, Mundu honetaz eta besteaz hausnarketa egiteko gonbite gisa.

Malkoak begietan, Mistorio bat kontatzen du amona Josefak: Orain urte asko, inguruko animaliek suminaren izen ona aldarrikatzea erabaki zuten. Banan-banan muino batera igo ziren, hain zuzen gaur egun ton-torrean harripiloa duen horretara, eta haritz zaharrenaren bueltan bilduta, momentu bat eraiki zieten egiari, ironiari, elkartasunari. Josefa bera izan zen bilkura hartan manifestu bat irakurri zuena, justiziaren aldeko sumina aldarrikatuz. Malkoak begietan, Josefak lurrera erortzen utzi zuen manifestu zahar-kitua, eta Mendebalaren putzaren putzak bultzatuta, Saramagoraino iritsi zen.

Zaindu gabeko plaza txikian, neguko eguzki printze goxotutako banku batean eserita, ilaje zuriko agure bat zegoen atsedean



hartzen. Haizeak hitzak xuxurlatu zizkion belarri-
ra, soilik biek dakizkiten hitzak. Agurea zutitu egin zen, kostata, eta bere oinetan gelditzea deliberatu zuen dokumentu ibiltaria hartu zuen eskuetan. Gero berebiziko gogoz irakurri zuen, eta bukatzean, orritxo bat atera zuen gabardina grisetik. Barruko poltsikotik denboraren joanean ahaztutako objektu bat atera eta neskaxa bat marraztu zuen zabu berde


batean kulunka.

Amona Josefak kontatu ere egiten du, urteak aurrera, aguretxo horri sari bat eman ziotela, "sona handikoa mundu zabalean", bere marrazkiengatik. Baina berari ahaztu egin omen zitzaion jasotzea. Sentsazioak marrazten ari zen hitzez beteriko bere arkatzarekin.

BERNARDO ATXAGA

Bambuloren istorio bambulotarrak. Lehen urratsak

Marrazkiak: Mikel Valverderenak
Erein.
1998. 119 orrialde



Ezjakintasunak bihurtzen duelako mundua zatar, baldar eta higuin-garri idatzi ditu Atxagak *Bambuloren istorio bambulotarrak*. Edo, bestela esanda, Bambulotar handien ekintza handiak. Familia handia dira, izan, Bambulotarrak: Beatus Bambulo Markoni, Bambulio, Bambulus, Bambulko, Bambulias, Bambulides, Bambulillo, Bambulegi, Bambulsson...

Bambulotar dira denak ere, haritz bereko ezpatak. Alditan Kalkulator, alditan Kezkator, edo Historiator, Investigator, Korrektor, Susmakor... Bambulo, betiere.

Bambulotar handi dira, nahiz eta Jon, Maria eta Ariadna ttikia beti ez

izan iritzi horretakoak. Bambulo, orduan, Mamulo dugu, edo Mamolo Totolo, Bambulo Memelo, Bombolo, Bimbili...

Era guztietara ere, kontinenteko txakurrik bizkorrenetakoa, edo agian bizkorrena. Eta termosoenetakoa. Hori ere bai.

Dena dela, ez dadila nahasketarik izan: Bambulok ez dauka zerikusirik. Walt Disneyren Bambirekin, filmetan jauzi eta jauzi egiten zuenarekin. Are gehiago, Bambulok ez du nahi harekin nahas dezaten. Ez eta ez. Ezta inola ere.

Haur, gazte eta helduentzat... Adinik gabeko eskaintza!!!

ALEXANDER UGALDE

Euskal Herria, un pueblo - un peuple - a country - herri bat

Argazkiak: Gonzalo Mtez. Azumendirenak.
SUA edizioak.
1998. 316 orrialde



Azkenik, Euskal Herriari buruzko liburua zure esku. Euskal historia, kultura eta usadioak eskaintzen dizkizuna. Zazpi herrialdeetan barna eramaten zaituena. Bere bazter miresgarrietan zehar ibiltzen dena. Herri

honen ariman murgiltzen diren hamaika testu eta irudi. Hainbat idazlek, poetak, historiagilek eta kantarik... idatziriko euskara, gaztelania, frantses eta ingelesezko aipuez osaturik.



JOSE SARAMAGO

De este mundo y del otro

Ronsel. 1997. 199 orrialde
1900 pezeta

EGOA LIBURUDENDA liburu hau eta Jose Saramagoren lan kasik osoa (tartean *Las maletas del viajero* kronika-liburua eta *In nomine dei* antzez-lana) aurki dezakezue. Gainera Leire Makazaga gasteiztarraren grabatuak bertan erakusgai direla gogora dakarkizuegu. Otsailaren 15a bitartean.



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 14 88 95

IRUSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

La Polla-k, zuzenean grabatutako disko batez, bere hamazortzigarren urtebetetzea ospatzen du. Sociedad Alkoholika-k mugak apurtzen jarraitzen du; No Intente Hacer Esto En Casa izan genuen euren iazko lana, soinu eta musikarien teknikari dago-kienez aurreko guztiak gainditu zitue-na. Potato-k PKO Original salgai jarri zuen; bide luzea Gasteizko reggae-k ibilitakoa. Betikoak beti bezain ongi, eta berrienek gogor eta senda jotzen: The Brontës, Bandar Log edota The Boogaloos-ek kalean, edo kaleratzear, dituzte jadanik euren lanak. Zorte ona izan dezatela!

Urte bete igaro da, eta ezer gertatu ez dela eman arren...

URTEAREN HASIERA

Urtarrilean Benito Malasangre mirandarra ezagutu genuen eta, izen artistikoari inolako jaramonik egin gabe, oso elkarrizketa atsegina eskai-ni zigun, bere estreinako diskoa den Música Para La Resistencia aurkeztu zigularik. Ska, blues, rock and roll-a

MENDEAREN AZKENA

hasi baino lehen



Jazzaldiko

izarrek

The

Rolling

Stonesen

hutsunea

ahantzten

lagundu

ziguten

UDABERRI FRESKAGARRIA

Udaberria betiko rock erakuntza-tik aldendu nahi zuen Ale Hop tal-dearen eskutik hasi zen. Dantzarako taldeek utzitako lekua bete nahi duten lagun hauek hip-hop, raga-muffin eta ska-z Gasteiz beltz bilaka-tzen saiatuz ditugu. Ez zenekiela disko bat dutela kalean? Para Vivir Así Más Vale No Morir Nunca. Horra hor bilatu behar duzun titu-lua. Baina hau ez da hemen amai-tzen, abenduan euren hurrengo lana aurkeztu ziguten-eta. Hortaz, adi!

Maiatza, loreak, eguzkiaren lehen-go izpi beroak eta La Xeta Paxote. Lau neska, lau punkzale, energia eta aldarte ona lau haizetara zabaltzen dituzten lau lagun.

Eta udaberriaren amaieran denok dakiguna; Mick Jagger-en eztarria

eta doinu mexikarrak oparitu zizki-gun gure hirian egindako lehenengo agerraldi hartan (abenduarien 12an Albert Pla-rekin batera egin zuen bere bigarren kontzertua gurean).

Neguko hotza pairatu ahal izateko erarik onena, dantza! Eta horixe izan zen The Boogaloos taldekoek ekarri zigutena. Dantzarako zuzenekoetan talde gutxi aritzen bada ere, Gastei-zen badugu hutsune hori betetzen saitzen den talde bat: The Boogaloos. Eta horrez gainera, bidea eratzen duten bitartean, euren lehenengo lana utzi digute. Zorionak!

Neguko amaieran aski ezagunak genituen Obligaciones izeneko lau-kotearen aurkezpen diskoa heldu zitzaigun. Gasteizko punk talde hau sortu zenetik sei urte igaro badira ere, itxarotea merezi izan du. Noizko bigarrena?



AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

jo eta ke
TXAPELARRI
TABER-

Aiztogile (KUTXI) kalean

Argazki - Estudio
Eramun

Heraclio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tnoa: 13 71 02 Tnoa: 26 19 91
01006 01004



LA POLLA EZIN ZUZENAGO. La Pollak, zuzenean grabaturiko disko batez, bere hamazortzigarren urtebetetzea ospatu du



GASTEIZKO JAZZALDIA. Marcus Miller baxuak urrezko tintaz sinatu zuen iazko Jazzaldiaren amaiera



SIXTIES-EI AGUR. 1998 urteak agur esan digu; baita The Allnightersekoek ere. Haiei eta denoi, ongi ibili!

txarto zegoela argudiatuz, The Rolling Stones taldea ez zen Euskal Herrira etorri. Bai, badakigu, Richards jauna, zuei tokatu zaizuela rock and roll-a hel daitekeela agertzea, baina lehen ikasi beharko zenukete jira erraldoiak gazteen kontuak direla. Dena den, beti nahiago izango ditugu gaztetan gauzatu zenituzten lanak.

JAZZALDIA ETA JAIK

The Rolling Stones etxean izan ez bagenituen ere, beste izen mitiko batzuek gure hiriko jazzaldia bisitatu zuten. Tito Puente-k eta Steve Winwood-ek izena eman zioten Latin Crossing taldeari, baina maila altueneko musika Arturo Sandoval-ek oparitu behar izan zigun. Taj Mahal-ek blues-a oso dibertigarria izan daitekeela erakutsi zigun, eta Marcus Miller baxujoleak urrezko tintaz sinatu zuen iazko jazzaldiaren amaiera.

Eta Los Padrinos laukoteari buruz, zer esan? Rock and roll freskoa, zuzena eta gitarren soinu-beterikoa gure karriketatik paseatzen dela. Besterik ez.

Arren
erro
zaharra
Betagarriren
bigarren
CDak
izandako
arrakasta
itzela
izan
da
aurten

UDAZKENA LASAIA

Uda eta beroa, beroa eta jaiak, jaiak eta dantza. Dantza, jaiak uda, Betagarri taldea eta euren bigarren lana: Arren Erro Zaharra. Mestizaje-ari eutsiz, lehenengo diskoarekin lortutako arrakasta mantentzeaz gain, zabaldu egin dute. Hirugarrena? Hurrengo udaran, ezta?

Udara badoa, badator udazkena. Kaleak barneko lokalei lekua utzi behar dien garaia. Hala ere, edozein teitlatupetan musikaz gozatzen jarraitu ahal izateko Silum Soundzen proposamendua dugu; industriak eskaintzen digunetik urrun dauden disk-jockeyak baino gehiago diren lagun hauen lana, hain zuzen.

Negua. Badirudi hau izan daitekeela Ruper Ordorikaren lan berria aurkezteko garairik aproposena. Baina ez, Ruper-en diskoak edozein unetan dira ongi etorriak, are gehiago azaroan argiratu zuen bat-batekotasun handiz gauzatu Dabilen Harria izeneko hau. Nor Dabil? Ruper bera.

Eta urtea joan zaigu Gazteizko talde berri baten estreinako lana kaleratzearekin batera; Bandar Log-ek baditu grabatuta rock lasai eta blues-era gerturatuko gaituzten kantak. 1998 urteak agur esan digu; baita The Allnighters-ekoek ere. Haiei eta denoi, ongi ibili!

TESTUAK: TXABI ARNAL GIL
ARGAZKIAK: EDORTA SANZ



MARRAZKIAK
KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 13 27 20

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- FotoKopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean
- Arte ederretarako...
behar duzun
guztia

PAPERTEGI TEKNIKA



gaurkoak eta betikoak

rock'n'rolla-aren historia formato berrian



IZENBURUA: ATLANTIC CROSSING.

TALDEA: ROD STEWART.

DISKETXEA: WARNER BROS. RECORDS.

URTEA: 1.975.

Ez dugu inolako Ezalantzarik: *sexy* bihurtu baino lehen, Rod Stewart jaunak disko ederrak gauzatu zituen, eta horren lekuko da jarraian aztertuko dugun *Atlantic Crossing* izeneko lp hau.

Egia da, The Faces taldea utzi ondoren, Rod Stewart-en musikak jatorrizko indarraren eta freskotasunaren zati bat galdu zuela, baina egia ere bada, hainbat single borobilen bidez, Stewart bakarlarik aurreko lagunekin lortu ez zuen arrakasta handiari heldu ziola.

Dena den, Rod eskoziarra ez dugu zerrendetako lehenengo postuetara iritsi ziren abesti guztien sortzailea, baina bere ahots zakarrak berak konposatutako kantak eta kanpotik etorritakoak elkartu zituen, Stewart-ek sinatu disko

guztiak ama bakar baten alaba bilakatu zirelarik.

Honen guztiaren adibiderik garbiena Atlantic Crossing daukagu; Stewart-ek berak sorturiko rock sendoa (*Three Time Loser*, *Allright For An Hour*, *All In The Name Of Rock And Roll*, *Stone Cold Sober*), eta bereak egin zituen kanpotik ekarritako abesti eztiak eta ederrak (*I Don't Want To Talk About It*, *It's Not the Spotlight*, *Sailing*) bildu zituen, hain zuzen.

1975. Rock and roll-ari helduta Stewart-ek bere karrerako lanik bikainenak oparitu zizkigun. Lau urte beranduagotik aurrera gertatu zenak, eta baita gertatzen ari denak ere, ez dauka zerikusirik orain kontatzen ari gareen istorio honekin.

TXABI ARNAL GIL

beste batzuk

SOLASIN

maixa ta ixiar

ELKARLANEAN



Taldearen aurreneko hiru lanekiko eta, orokorrean, euskal pop musikarekiko aurrerapausogari markatu nahirik datorkigu Maixa eta Ixiarren Solasin. Ohiko zaleen gozagarri eta ez zirenentzat ezusteko atsegina. Poperoagoa dela diote. Ez dakit hori esatea asmatzea den, baina kalitate aldetik sekulako jauzia nabaria da. Kitarrak ausart ageri zaizkigu Maixaren trikiarren konpetentzia goxoa sortuz. Taldeak arriskatu egin du eta asmatu ote duten salmentek adierakiko digute. Egingo dutelakoan nago ni.

NO SECURITY

rolling stones

VIRGIN



Gezurra badirudi ere, 37 urte eta gero, Stones-en azkenengo lana fresko daukagu. No Security izeneko lan honetan ez dugu abesti berririk bilatu behar, baizik eta jadanik ezagutzen genituen zenbait kantaren zuzeneko birmoldaketa. Aipagarriena Taj Mahal-ekin batera gauzatu Corinna kanta, eta posible dela abesti berriak eta zaharrak bateratzea.

NO ES LO MISMO NI ES IGUAL

juan luis guerra 440

BMG-KAREN



Azkenengo urteetako atsedena utzi ondoren hona datorkigu berriz ere Juan Luis Guerra arrakastara eramanean zuen estiloari eutsiz. Merengea, bachata eta erritmo afrikarrak. Ezer berririk ez. Dena den, Guerra saiatu da konprometuz, gaurkotasuna, eta komertzialtasuna batzen disko duina lortzeko. Eta lortu egin du. Laster irati zein salmenta zerrenda guztietan!

... eta 99a nola datorkigun!

Agur esan dio, penaz, Txabi Arnalek joan zaigun 1.998 urte musikalarari. Bi orrialdeotan ondo baino hobeto laburbildu dizkigu Arabako musikariek etxean zein kanpoan eta kanpokoek etxean izan dituzten pasadizorik interesgarrienak. Notizia txar batekin itxi du bere soslai, The Allnightersen betirako (nork daki?) agurrarekin, alegia.

Berri hobeak dakarzikit nik, oster, 1.999an buru-belarri sartu baikara dagoeneko... eta nola, gainera! *Elefante Blanco* aretoan egin zuten The Allnightersekoek beren azken saioa. Bada *Circulon* aurkeztu zuten abenduaren 26an estreineko diskoa Iñigo Ortiz de Zaratek (Allnighters-ohia) sorturiko The Boogaloos taldeak.

Ez dira, baina, bakarrak izan. Egun batzuk geroago In-Albis-ekoak aurkeztu zitzaizkigun. Urtea amaitu aurretik ere *Cain no es malo* ezizenaz ageri zaigun artista berriak *Sueño despierto* lan interesgarria erditu zuen.

Ziurrenik bat edo beste ahaztu egingo zitzaidan nota artean (txanpaina gehiegi?), baina urtea nola datorren agertzeko nahikoa momentuz.

Batek faltan botatzen dituen batzuen itzulerako urtea izango ote? Bada, Triku, (je, je) garaia!

Urte berri on denoi eta, ez ahaztu, ekin gogor *bafleei*, horretarako daude-eta.

ASIER PZ. DE KARKAMO



HEGOALDE
euskaltegia.

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

matrikula
zaitez!

Tu Invernadero
zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

BERTSOAK

Gasteizko plazara. GEU Elkarteak antolatuta eta Geu Gasteizen laguntzaz, bertso saioa jasoko du berriz ere Principal Antzokiak. Otsailaren 27an izango da. Sarrerak aldeaz aurretik jaso daitezke ohiko lekuetan eta Geu Gasteizko harpidedunok, aldizkariko etiketa erakutsiz gero, 350 pezetako deskontua izango dugu. Bertsolariak hauek izango dira: Andoni Egaña, Oihane Perea, Jon Sarasua, Asier Otamendi, Unai Iturriaga eta Oihane Enbeita.

GEU Elkartea

Pedro Asua kalea, 2. 3. solairua.

945 22 21 53

ANTZERKIA

Kultur errota. GEU Elkartea dugu ere, Topagunearekin batera, Kultur Erroten antolatzaile [ikus 9. orrialdea]. Lehen saioa urtarilaren 29an izango da Kultur Etxean. Mixel Ducau eta Karoline Philips ariko dira. Telonero bezala, arratsaldeko 20:00etatik aurrera, Ander Lipus izango da.

HAURRAK

Ipuinak Gizarte Etxeetan.

Iparralde Gizarte Etxeak, haurrentzako programazioaren barnean, *Batzuek lagunak eduki eta beste batzuek ez edukitzearen arrazoiak zein ote?* lelopeko ipuin laburren lehiaketa antolatuta du. 8 eta 14 urte bitarteko haurrek har dezakete parte eta lanak otsailaren 1etik 18ra bitartean aurkeztu behar dira.

Iparralde Gizarte Etxea

Zuberoa plaza, z/g.

kultur arloa: 945 16 17 50



LEHIAKETAK

Sexismoaren kontra ipuinez.

Gasteizko Udalak, Emakumeentzako-Zerbitzuaren bitartez, Sexismoaz gaindiko Hirugarren Ipuin Lehiaketarako deia zabaldu du. Euskarazko eta gaztelarazko modalitateak daude. Lanak emateko epea urtarilaren 20an amaitzen da, hortaz, adi egon! informazioa eskuragai honako lekuan:

Gasteizko Udala.

Emakumeentzako-Zerbitzua

Espainia plaza, z/g.

JAIALDIA

Txistorradika. Urtarilaren 29an, ostirala, gaueko 8etatik aurrera Gasteizko Gaztetxean, urteroko txorizo jana burutuko du IKAK. Ohi bezala sekulako giroan apainduko du ekitaldia: musika, dantza, janari eta edaria... Den-denok gonbidatuak gaudela jakin izan dugu. Beraz, badakizue:

Kumin, kumin, euskaraz hitz egin!

Gasteizko IKAK Pintore kalea, 74.

945 28 97 80

KOMIKIA

Angulemara bidaia. Urtarilaren

30 eta 31an Nazioarteko Komikigintza Jaialdia ospatuko da Anguleman (Frantzia). Angulema gure hiriarekin anaidetua dagoen hiria da, hain zuzen ere. Hori dela eta Gasteizko Udaleko Kultura Sailak bidaia antolatu du joan nahi duten denentzako.



Bidaiak 6.300 pezetara kostatuko du.

Autobusaz gain, jaialdiko sarrerak eta hotela sartzen dira prezio horretan.

Gasteizko Udala, Kultura Saila

Aihotz plaza z/g. (Goiuri Jauregia)

945 16 12 70

MUSIKA

Ahots eta biola. Maria Villak (ahotsa) eta Jesus Sanchezek (biola) osatzen duten bikoteak musika saio goxoa eskainiko dute urtarilaren 15ean, ostirala, arratsaldeko 20:30etan Montehermoso Kulturuneako klaustraan.

Montehermoso Kulturunea

Fraí Zacarias Martinez kalea, z/g

945 16 12 68, 945 16 18 19

www.vitoria-gasteiz.org

erakusketak

KORDOI ETXEA.

Mariquita Perez gogoan. Mende hasierako panpina zen, eskuz egiten zena eta, garai hartan, kompetentziarik ez zuena. Ez dira, honez gero, erraz eskuragai. Bada, bat ikusi nahi baduzu zoaz hilaren 24ra arte kordoi Etxean dagoen *Mariquita Perez eta bere lagunak* erakusketara. Ehunetik gora panpin aurkituko dituzu.

VITAL KUTXA.

Ildo beretik, *Aintzinako Jostailuak* dira ikusgai Posta kaleko Caja Vital Kutxa Fundazioaren erakustaretoan. Panpinentzako etxeak, berunezko soldadotxoak eta milaraino jostailu



zahar zoragarri. Urtarilaren 24ra bitartean dago hau ere zabalik.

KULTUR ETXEA.

Araba pabilioia apainduko duten artelanak erakusgai dira berton egokitu artean Floridako pasealekuko Kultur Etxeko aretoan. Urtarilaren 16ra arte.

bar • restaurante
albéniz

Errege Atea 9

GASTEIZ

plató
TABERNA

☎ 22 65 64

GASTEIZ

Zaldiaran Plaza, 10

JANTZI ETA OPARIAK

Aiztogile (KUTXI), 27
Tfnoa: 26 07 10

GASTEIZ

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile (KORRE), 14 San Migeleko Pasabidea
Tfno: 12 08 88

01001 - GASTEIZ

ONGI ETORRI

xurrut

KUTXI 103

GASTEIZ

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak, pintxoak, kazuelatxoak

Aiztogile (KUTXI), 33 tfnoa. 25 02 39



Exijitu etiketa eta bertoko behi-okelaren bermea izango duzu, naturala eta kalitatekoa.



EUSKO LABEL



EUROPAKO ELKARTAREN PARTAIDETZAREN FINANTZATUA

Labeldun okelen salmentan duten espezializazio maila handia dela eta, ikur honekin (►) adierazitako Harategi Baimenduek ARTISAU ERAKO HARATEGI ESPEZIALIZATUEN sailkapena dute Kalitateko Eusko Labela duten produktuetan

VITORIA-GASTEIZ

- CARNICERÍA MÁXIMO SANCHEZ, Portal de Villarreal, 2
- CARNICERÍA ELVIRA Fernández de Leceta, 1
- CARNICERÍA HNOS. MTEZ. DE ALEGRIA Cuba, 3
- CARNICERÍA HNOS. MTEZ. DE ALEGRIA Enrique Eguren, 5
- CARNICERÍA MARQUEZ Adriano VI, 11
- CARNICERÍA SANTI AIZPEOLEA Paraguay, 17

CARNICERÍA AIZPEOLEA

- Mercado de la Florida, 19
- CARNICERÍA J.L. GARMENDIA Andalucía, 13
- CARNICERÍA AIZPEOLEA Mdo. Abastos Ptos., 2-3 Pza. S. Bárbara
- CARNICERÍA WENCESLAO ACEBO Mdo. Abastos, 26 Pza. S. Bárbara
- CARNICERÍA LASAGABASTER Portal del Rey, 24
- CARNICERÍA ELVIRA Coronación, 9

CARNICERÍA ELVIRA

- Hortaleza, 12
- CARNICERÍA ELVIRA Siervas de Jesús, 37
- CARNICERÍA FERNANDO ARRONIZ Ariznavarra, 2
- CARNICERÍA J. IZAGIRRE Mdo. Gasteiz, Puesto, 11 (Abendaño, 46)
- CARNICERÍA MIGUEL ARRONIZ Jose Mari Olarte, 23 (Lakua, 5)
- CARNICERÍA ELVIRA Los Isunza, 3

CARNICERÍA GENARO

- Mercado Arana, (Plaza Aranzabela)
- CARNICERÍA CHARCUTERÍA AMADO Juntas Generales, 27-29 (Lakua, 13)
- EL CORTE INGLES S.A. La Paz, 2
- AMURRIO
- CARNICERÍA ALAVA Elxondo, 10
- ARAMAIO
- BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA Bixenti Goikotxea Plaza



kide

APAINDURA
Zerkabarren (Cercas), 27 Tfnoa: 14 41 95 GASTEIZ

k

Annapurna zain dago

ANNA PURNA

HERRIARDEA: NEPAL

ALTUEA: 8.078 M

IGOTZEN LEHENAK:

M. HERZOG-L. LACHENAL (FRA)

URTEA: 1.950



Annapurnakoa ez da Oiarzabalen
azken espedizioa izango, bai,
ordea, garrantzitsuena. Mendizale-
ak urte asko eman ditu helburua
lortu asmoz, eta dena ondo lotu
nahi du azken 8.000a gainditzeko.

Orain arte gutxi erdietsi dute...

Hurrengoa bera?

Azken urteotan Juanito Oiarzabalek Aconcaguan eman ohi zuen urtarrila. Beste mendizale askok bezalaxe bidaia bereziak antolatzen zituen mendia atsegin duten horientzat. Aurten ere horrela egin nahi zuen, dena prest baitzegoen: baimenak, materialak... Halere, azken unean bidaia bertan behera uztera bultzatua ikusi du bere burua, berau egin ahal izateko behar beste bidaiari ez baitzegoen. Lau lagun baino ez nituen. Horrela ez zegoen gastuei aurre egiterik, eta aurten ez naiz joango. Hasieran bakan batzuek antolatzen genituen horrelako bidaiak, baina egun makina bat mendizalek dihardugu honetan. Beraz, nire prestakuntza hobetu nahian Alpe Mendiara joango naiz egunotan.

Aconcagua mendiak 6.959 metro ditu. Ez da mendi zail horietako bat, eta horregatik mendizale asko berta-


ra joaten dira gailurra egin asmoz. 400.000 pezetaren truke bidaztiak 21 egun ematen ditu etxetik kanpo, gastu guztiak barne: hegazkina, baimenak, elikadura, gidariak, tresne-

ria... Adin guztietako lagunak joan dira Oiarzabalekin azken urteotan. Zaharrak zein haurrak. Aconcaguara igo den neskarik gazteena nik eraman nuen, Naiara Ezeiza eskoriatzarra, alegia. Alabaina, beste garai batzuk ziren horiek. 18 bat lagun joaten ginen orduan. Aconcagua mendia hiri txiki bat da; bertan amerikarrak, japoniarrak... leku guztietako mendizaleak dituzu. Oso leku atsegina da, mendia igotzea ez baita zaila. Horrez gain, ondo jaten duzu eta eroso da. Tamalez, ez naiz joango, baina horrela neure burua hobeto prestatuko dut nire azken 8.000a bereganatzeko.

Pou eta Vallejo lagun

Oiarzabalek azaltzen duenez, udaberrian Annapurnako gaina zapalduz gero, lurreko hamalau 8.000ak bereak izango ditu. Horren ondorioz, datorren espedizioa ez da nolanahikoa izango. Honetan Jon Armentia sendagileak lagunduko digu. Laguntza handia izango da, batetik, arazo fisikoei aurre egiteko, eta bestetik, Euskal Herriarekin egin nahi ditugun komunikazioak errazteko. Eneko Pou eta Juan Vallejo mendizaleak nirekin igoko dira. Juan Vallejo ederto ezagutzen dut, eta badakit lan ona

Ezin
naiteke
naiteke
berrogei
bande-
rarekin
igo:
Zenbait
ezetz
esan
behar
izan
diet.



UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 • Tfnoa: 24 49 65

Abendaño kalea 48 • Tfnoa: 22 34 33

GASTEIZ

MIKO

izozkiak



27

geu gasteiz

egino duela. Eneko Pou (1997ko abenduko Geu Gasteizko kirol protagonista) etorkizun handiko kirolaria da, eta Himalaiara lehendabizikoz doan arren, aproba egin nahi dugu berarekin. Bukatzeko, 'Al filo de lo imposible' telebista saioko kamara bat ere lagun izango dugu, kontratu bat sinatu dut-eta Espainiako telebistarekin.

Azken 8.000a lortu izanak dirua eman dio Oiarzabali, eta ez ditu hainbeste joan-etorri egin behar izan dirulaguntzak bereganatzeko. Hala eta guztiz ere, arazo txiki batzuk ere suertatu zaizkio. Enpresa, elkarte... ugarik beren bandera tontorrera igotzeko eskatu didate. Normalean, ez da arazorik izaten, halere, ezin naiteke 40 banderarekin igo. Bada-kit, lagun guztiei eskaini behar diedala arreta, baina batzuei ezetz esan behar izan diet. Horiei ezetz esan badiet ere,

hainbat banderarekin igoko naiz... Espedizioa Martxoaren 25ean irtengo da Gasteizetik. Apirilean bertako girora modatuko dira, eta maiatzeko lehen hamabostaldian gailurra zapaltzen

saiatuko dira.

Gezurra dirudien arren, Oiarzabalek kale egitea aurreikusten du. Gu gailurra egitera goaz. Nolanahi ere, mendia ez da txantxa eta agian ez dago helburua lortzerik. Horrela gertatzekotan, udazkenean saiutuko nintzateke berriez. Annapurnakoa lortuz gero, ordea, Everestera joan nahi dut, oxigenorik gabe igotzea baitut jomuga. Orain arte, mundu osoan bost mendi-

zalek eskuratu dituzte lurreko 14 mendirik garaienak. Seigarrena Juanito Oiarzabal izango al da?

TESTUAK: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

Annapurnari bai baita euskarari ere



Berrogei banderarekin ezin dela igo eta zenbait laguni ezetz esan behar izan diela aitortu zion Juanito Oiarzabalek Geu Gasteizi.

Uko egin dienen artean eskaintza ekonomiko interesgarriak daudela badakigu. Nolanahi ere, sosik emango ez dion arren, *Bai euskarari* kanpainaren ikurriña besapean eraman- go du gure Juanitok bere hamalagarren saio handian.

Pozet betetzen gaituen ekimena da Arabako kirolaren historiak inoiz eman ez duen mendigoizale atseginenaren eskutik datorkiguna.

Zorte on Juanito. Ez da erronka makala, baina inork lor badezake hori zu zeu zara.

ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16 28 28 39
01002 Gasteiz

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



HegoAmerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea • S. Frantzisko
kantoieko ertzean Tfnoa: 25 03 52

botepronton

Maier Uriarte

Judoka

*Maier Uriartek 16 urte ditu.
Nahiz eta oso gaztea den,
Arabako judokarik onena dugu
egun. Bere kategorian Euskal
Herriko eta Estatu espainiarreko
hainbat txapelketa irabazi ditu.
Inork ez daki noraino hel
daitekeen. Berak ere ez.*



Esaten dutenez, etorkizun handiko kirolaria zara. Oso ona zara ala besteak txarrak ditugu?

Je, je... Araban txapelketa gehien irabazi dituen emakumea naiz. Ez dakit oso ona naizen, hitza geroak du-eta. Baina, egia da, gurean emakumezkoen judoa ez da puntakoa. Atzetik judoka onak datoz, 14 urtekoak edo...; mutilak horiek, ordea.

Bizkar ederra duzu...

Eta zer egingo diot? Gogoko ez dudan arren, entrenamenduaren ondorioz horrela jartzen zait. Badakit..., mutilentzat polita da, neskeentzat, berriz, ez.

Gimnasiotik at judoa erabili behar izan duzu noiz edo behin?

Ez. Ezagutzen ditudan batzuek erabili behar izan dute, baina nik ez. Gure legeak dio ezin dugula kalean erabili; halere, behar izanez gero, erabiliko nuke. Kontuz ibili beharra dago horrekin, min handia egin baitezakezu.

Judoa kirola baino gehiago da?

Bai, disziplina. Borrokan hasi baino lehen etsaia agurtu behar duzu, mugimenduak, adimena landu beharra... Lasaitzen zaitu, baina berriz aipatzen dut: ez da kalean jarduteko, edonor utz dezakezulako aulki batean bizitza osorako.

Euskal Herriko eta Estatu espainiarreko txapelduna zara. Noizko Europakoa edo mundukoa?

Nazioarteko txapelketak bereganatzea ez da lan erraza. Martxoan Estatukoa dut berriz; postu ona bereganatuz gero, Europakoan hartuko dut parte. Ez dakit, agian ez dago urruti...

Igandero 15.000 zaletu inguru Mendizorroztara hurbiltzen dira Deportivo Alaves ikustera. Zuen txapelketetan noiz bildu dira zaletu gehien?

Beharbada Estatuko azken txapelketan izan zen. Gasteizetik senitartekoak eta lagunak ere joan ziren, baina guztira 100 bat baino ez...

Aurtengo Emakunde Saria Gaztedi Rugby Taldeko neskeentzat izan da. Haiek ederrak eta bi egin behar dituzte taldea aurrera eramateko, judoan ere gauza bera gertatzen zaizue emakumeei?

Kirol batzuetan horrela da, judoan ez. Hori bai, baten bati entzun behar izan diot txapelketak irabazi ditudala, emakumezkoen norgehiagokak errazagoak direlako. Hori ezin esan daiteke, ez baita egia.

Ah! zer ekarri dizu Olentzerok?

Alkondara bat, zapatak, dirua... Betikoa. Eskatzea debalde da...

Zoriontasuna, ekonomikoki arazorik ez, mutil on bat harrapatzea, judoan ametsak lortzea..., eta batez ere, Olinpiadetan esku hartu ahal izatea.

TESTUAK: ISMAEL D. ARGAKZIA: EDORTA S.

laburrago

BASKONIA

Entrenatzaile berria, garaipen ziu-rra esan ohi da kirolean. Esaldia aldatuko dugu zertxo bait eta pabilioi handiagoo garaipen ugariagok botako dugu airera. A, ze denboraldia azken hilabeteotan Baskoniak burutzen diharduena! Ligan, European... zeharo eman dio buelta urte hasiera makal hari. Datozen asteotan Europako partido gordinenei eta Errege Kopari egin beharko diote aurre Scariolorenek. Ea bideari eusten dioten.


EUSKARRI

Kirol Taldea sortu zenetik, duela hiru urte, inoiz eskuraturiko emaitza hoberenak lortu dituzte aurtengo denboraldian gure taldeek. Ekonomia aldetik gauzak horren ondo joan daitezten egutegiak saltzen dihardute Euskarriko jokalariek. Egutegiok Iñigo Sarasolak sorturiko logotipo berria ezagutarazteko balio nahi dute era berean.



ALABES

Erredakzio hau ixterakoan oraindik ez genekien Nicola Berti italiarra Gasteizko taldearekin sinatu ote zuen. Izen handiko gizona da, ezbairik gabe, Berti. Hala da ere Julio Salinas. Eta Telmo Zarra, Pichichi, Maradona... Entrenatzaile lanetan ondoegi irten ez zaionez bueltatuko al da, jokalaria bezala, Valdano Mendizorroztara? Antonen esku!



NONBAIT

OPARIAK: ZERAMIKA, ZILARRA, POSTALAK...

KAMISETAK: BARABÚ, GREENPEACE, KOT, PERRETXIKOAK BASOAN...

EUSKAL OIHALAK

Loma jeneralaren plaza, 5 • 01005 GASTEIZ • Tlf. & faxa: 945 13 93 09

...ETA BAI, ETA BAI, NIK EUSKARARI BAI TA BAI...


Imanol Barrutia / irakaslea

ogei urte pasa dira eta ez naiz duela gutxi Espainaiako folkloriko nagusiek ospatu, eta behin eta berriro betetzen ez den "ditxosozko konstituzioa"-z ari. Hasieran aipatu hitzak ez ziren lur antzuan erori. 1978an izan zen euskararen aldeko kanpaina gogoan dugu gaztee-giak ez garenok, tamalez. XXI. mendearen atarian gaudenean Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUAK arestian aipatu urte hartako kanpaina berreskuratu du euskarak oraindik dituen beharrei jarraipen bat ematearren.

Gutariko bakoitzak zer egin dezake?, galdetzen digu Kontseiluak. Nik beste galdera bat erantsiko nuke...: Kanpaina hau amaitu ondoren, zer?. Bi galdera hauen erantzunean dago euskararen etorkizunaren giltza. Kanpainak iraun bitartean denok sentitzen gara babestuta eta, bero-bero, dagozkion helbururei eusten diegu... Baina berotasunak alde egiten duenean eta epel xamar jokatzan badugu, ez dago esaterik par-

tida guztiz galduta dugula. Konpromezu pertsonala nahitaez beharrezkoa da, norberak eman dezakeen neurriaren arabera.

Egunez egun ikusten da euskarak etsai asko dituela "konstituzionalisten" artean, baina ezpairik gabe, ariorik mingarriena eta kalte handien egin diezaiokeena etxean dago, zelai propioan: euskara dakienak, asko edo gutxi, eta bere ohiko bizitzan tresna aberats hau bere eskuetan eta, batez ere, ahotan erabiltzen ez duena.



Beste zenbait arlotan gertatu bezala, batu ditza-gun indarrak. Euskaldunon sendotasuna euskararen kontrakoan ahultasuna izango baita.

"XXI. mendeko akordioa" hurrengo belaunaldiak jasoko duten oparirik aberasgarriena izan dadila!. Eta horrela gertatzen ez bada, errudun nagusi eta bakarrak "euskaldunok" izango gara. Denbora lekuko.

BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 43 00 73

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana kalea, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ

JATETXEA

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguai kalea 17
☎ 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 ETA 3
☎ 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 ETA 3
☎ 26 78 97



JOSEBA
HARATEGIA

Paraguai merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

Floridako altxorra !

35



adaka **M**
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

umorea
Txeroki

IÑIGO SARASOLA



BIGARREN MILURTEKOAREN BUKAERA DELA ETA PASADIZO BAT

Asier Iriondo / bertsolaria

i mila urte. Gezurra dirudi. Ez dakit kalkuluak ongi egin ote zituzten. Nolanahi ere, ustez behintzat, hirugarren milurtekora heltzekotan gara. Norabait heltzeak beti zerbait bukatzea eragiten du eta kasu honetan bigarren milurtekoa da ustez bukatuko duguna. Ustez diot kalkuluak ongi egingo zituztelakoan eta ustez diot bukatuko dugulakoan.

Gure aitona zena duela hamar urte hil zen 84 urte zituela. Hark, hil aurretik noski, ziurtzat jotzen zuen hirugarren milurtekora iritsiko zela. Bi milagarren urtean 96 urte izango zituela ohartzen bazen ere, zalantza izpirik ez zitzaion nabarmentzen bi milagarren urterako planei buruz hitz egiten zigunean. "Traktore berria erosi behar-ko diagu hau zahartuxea egongo duk eta", eta honelakoak botatzen zizkigun. "Hire ezkontzarako trajea ere agian erosi egingo diat. Hire aitarenekoa ordurako zimurtuegi egongo duk", ezkontzarako data ere jarri zidan niri. Baliteke bere barruan mende berean jaio eta hiltzeko beldurra izatea. Hau nire susmoa besterik ez da. Baina, mende bakar bat ezagutzetik bi milurteko ezagutzera alde handia behar du, nahiz eta urte gutxiren aldea egon.

Bere azken hilabeteetan burua nahikoa nahasia zuen arren bere asmoak bere hartan zirauen. "Edozein unetan gerta daiteke" esaten zigun sendagileak. Gauzak honela, gure aitari, hau da, aitonaaren seme zaharrenari honako ideia hau bururatu zitzaion: "Bi milagarren milurtekoa bukatzeaz dela sinestaraziko diogu". Uste baino errazago sinetsi zuen. Aitona aurrean zela ez genuen beste gairik aipatzen. Azkenengo egunari data

ere jarri genion. Astebeteko epean iritsiko ginen egun horretara. Aitonarentzat zazpi aste epean eguneko aste-bete igarotzen zela sinestarazi baikenion.

Traktore berria eta nire ezkontzarako trajea ere erosi genizkion, nahiz eta nik garai hartan hamabost urte izan. Garestitxoa zen aitona poztea baina tira! Hil eta gero berak ere lur sail batzuk utziko zizkigun. Milurtekoaren bukaera iritsi zen. Aitonak etxean egiten zuen gau eta egun eta erraza zen gabonetan geundela pentsaraztea. Belena eta zuhaitza dotore jarri genituen, etxetik kanpo oraindik udazkena izan arren. Gau hartan, aurreko urteko urte bukaerako telebista saioa jarri genuen bideoan. Gure izebak urtero grabatzen zuen eta oraindik ere egiten du.

Kanpaien joaldien erritmoan mahatsa jan eta hirugarren milurtekoan sartu ginen.

Aitona handik bi egunera hil zen. Bere baitan bi aste egin zituen bigarren milurtean. Nire ezkontzara joan gabe hil zen. Izan ere, hurrengo egunerako baikenuen ezkontza prestatua. Hau da, hirugarren milurtekoaren hirugarren asterako. Halere, horrek ez ziokeen bi milagarren milurtekoa gaintitzeak eragin zion poza berdinduko.

Hau dela eta, hirugarren milurtera heltzera goazen honetan ez dut ezer berririk ikusten, gure familian honetatik paseak baikara. Edo hala pentsatu nahiko nuke behintzat. Gerta baitaiteke, guk aitona egin genion bezala, norbait niri edo guri hori sinestarazten aritzea. Oraingoz

susmo hau ez da indartsuegia baina traktore berri edo trajeren bat ikusten badut, zer pentsa emango dit. Badaezpada, konta itzazue egunak ondo.



J A T E T X E A



Aiztogile (KUTXI), 26 tfnoa: 28 81 47
GASTEIZ

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 25 56 90 GASTEIZ



arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 28 18 38

KLIK-KLIK

Elbira Elejalde / ikus-entzunezkoetan lizentziatua

os comulgantes filma ari ginen ikusten, Ingmar Bergmanen zikloaren barnean eta, bat-batean, hots arraro bat hasi zen, klik!-klik! Narrazioa motel-motel zihoan, intimista. Klik! klik!, soinuaren erritmoak hazten jarraitzen zuen apurka-apurka, filmaren argumentuarena, aldiz, ez. Zirudiena -aretoko emakume batek sortu izana, alegia- baztertu nuen, eta zine areto baten barnean izanik, sinesgaitzat hartu ere bai. Errealitatea zen eta ez fikzioa: musikarik ez zegoen filmean gero eta ozenkiago entzuten ari ginena ur tantak ziren, dudarik gabe. Tarte dexente baten ostean, eta de-xen-te-a esan dut, mutil bat hurbildu, paperontzi bat jarri, eta -klonk!-klonk!-klonk!-: serio samarra zen filmean aurrean barre algarak sortu ziren. *Ez larritu, betetzen den heinean hotsa leunago bihurtuko da-eta!* Eta gero batzuek diote Bergman ez dela dibertigarria!

Kasu bitxi honetan errealitateak fikzioa gaintitzen du baina, film batean zer daukagu dibertigarritzat? Gehiengotan zine aretoetara film entretenigarri baten bila jotzen dugu. Izan ere, zenbat aldiz entzun dugu *nik ez dut zinemara joan nahi tristurak ikusteko?* Edozein modutan, bakoitzak bere gustukoak baditu ere (zenbat buru, ...) -erromantikoak, akzioa, gore-a..., exijentziak ere desberdinak izaten dira. Zergatik mugatu ohi da entretenigarria dena azkar, konturatu gabe, pasatzen den film horretara? Askotan *gag* zehatz batzuetan barre egiteaz gain, ez dugu ezer gehiagorik aurkitzen. Eta horretarako hainbeste ordaindu? Nik zentzu zabalago batean ulertuko nuke, eta batez ere arreta mantendu egiten duenarekin. Honekin lotuta dago, jakina, zerk sortzen dion bakoitzari interes handia eta berriro ere eskakizuna eta, nola ez, aretoek eskaintzen digutena.

Bilboko Jaialdiko film



laburren erakustaldia oso arrakastatsua izan da Gasteizen berriki, jende asko sartu ezinik at geratuz. Pozgarria da jende asko zerbait desberdin eta interesgarriaren bila dabilela ikustea. Beharbada, haientzat ere, entretenigarria izango da gauza berri horren atzetik ibili eta, jakina, aurkitzea. Nahiko nuke zineman ezezik, arte eta musika arloan ere gauza bera gertatzea, eta eskakizunak eta dagozkien eskaintzak ugaltzea. Horrela, gure gozamenerako, Gasteiztik zehar arte eta musika areto onak izango lirateke, nonahi. Bitartean nola edo hala jarraituko dugu bilaka eta, batzuetan, zergatik ez, kexaka.

Agian, tamalez, informazioaz gain, jarrera kontua da. Zergatik ez da kasik inor biltzen maiz dohain edo oso merke diren kontzertuetara? Zergaitik ez da jendea galeria txikietara joan ohi, hauetan ere sarrera doakoa izanda, artelan berriak ikustera? Seguru asko, hauetaz ezer ez badakigu gure sorpresa handiagoa eta pozgarriagoa liteke. Noiz edo noiz musika talde batzuk etorri, eta handik hil batzuetara ospea hartzen dute. Gero alferrik da kexu izatea, eta hirian arte espazio edo kontzertu areto on bat faltan botatzea.

Ez naiz ezkorra izan nahi, baina onartu behar dut gus-tuko nukeela Gasteiz irekiago, ikusgurago bat, non gauza desberdinak bilatu eta sortzen arituko zirenek gehiengoa osatuko luketen. Behinik behin ondo pasatzeko aukera liteke.

Bukatzeke, eta zorionez, oraintsu esandakoa ezeztatzen duenik badago, lehen aipatu bezala: *Gasteizen Bilboko Jaialdiko film laburren erakustaldia oso arrakastatsua izan zen, jende asko sartu ezinik at geratuz. Dibertigarritasunagatik ote?*

Niretzat dibertigarria da gauza berrien bila ibiltzea eta, noski, aurkitzea... Espero dezagun hasi berri dugun urte honetan, aretoz areto menu berriez gozatzea! Klik!

THE END



GUREA

jatetxea

Konstituzio plaza, 10
Telefonoa: 24 59 33





ONDOKOETAN BADAGO EUSKARAZ DAKIEN LANGILERIK

UDAL-BULEGOAK ZERBITZUA		HELBIDEA	TFNOA.
Udaletxea	Argibideak eta Erregistroa Emakumeentzako Zerbitzua Errolda Euskara Zerbitzua Funtzio Publikoa Gazteen Argibide Bulegoa Idazkaritza Prentsa Bulegoa Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1	16 11 88 16 13 45 16 11 06 16 15 22 16 11 41 16 13 30 16 13 20 16 13 37 16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Eduardo Dato kalea, 11 Eduardo Dato kalea, 11	16 16 68 16 11 33
Udala (San Prudentzio kalea)	Gizartegiuntza Hiri Hobekuntza Ingurugiroa	San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30	16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko Ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 88
Kultura	Argibideak	Goiuri Jauregia (Villa Suso)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11 16 13 48
Gizarte Etxeak	Ariznabarra Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Landatxo	Ariznabarra kalea, 19 Alberto Schommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Urriaren Hamabiaren kalea, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Santa Maria kalea, 4	13 36 91 16 18 80 16 17 60 16 17 40 17 17 81 16 16 82
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Bulegoa Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31 16 12 61 16 36 91

CASA DE CULTURA



KULTURA ETXEA

KULTURA

CASA DE
ETXEA

hitza kultur etxean

urtarrilak 14, osteguna

Diaporama

Dhaulagiri eta Sisha Pangma

Mendizaleak: Kike de Pablo, Iñaki Kerexeta eta Juan Vallejo.

urtarrilak 21, osteguna

Olerki errezitak kantuz jantzia

Bakarrik bahago neguan

Jose Luis Otamendi, Labrit Zabala eta Imanol Ubeda

otsailak 4, osteguna

Poesia saioa

Poesiaren kontra, poesiaren alde

Ibon Zaldúa eta Gerardo Markuleta.

otsailak 18, osteguna

Errezitala

Tribuaren hitz salduak

Pako Aristi eta Mikel Markez.

ekitaldi guztiak arratsaldeko 8etan hasiko dira

Florida pasealekua, 9 - 945 18 19 44 - faxa: 945 18 19 45 - 01005 - GASTEIZ